

64

3 euro • 2002ko URTARRILA euskal heziketarako aldizkaria

hh

hik hasi

GAIA: EMAKUMEA HEZKUNTZAN  
• TEKNOLOGIA BERRIAK • EKAR-  
PENA: DROGAK LARRUGORRIAN  
• BILBOKO EUSKAL ESKOLAK  
(1908-1918)




ELKARRIZKETA

**Myrtha Hebe Chokler**

Argentinako psikomotrizista







gaia

## EMAKUMEA HEZKUNTZAN

Irakasle gehienak emakumezkoak dira, baina zer gertatzen da zuzendariekin edo kargudunekin? Normalean gizonetzkoak dira funtzio horiek betetzen dituztenak. Abiapuntu horretatik hasita eskola hezkidetzailaren inguruko hausnarketa egin dugu.



elkarrizketa

## MYRTHA HEBE CHOKLER

Buenos Aireseko (Argentinako) Psikomotrizitate  
Eskolako zuzendaria

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

## EMAKUMEA HEZKUNTZAN Gehiago bai, baina zertan?

Mari Jose Urruzola, Nekane Agirre, Aines Dufau eta  
Mila Barea

18 elkarrizketa

## MYRTHA HEBE CHOKLER

26 teknologia berriak

## Teknologia Berriak hezkuntzan

Iker Laskibar

28 ekarpena

## Drogak larrugorrian

30 ekarpena

## Euskaraz jolasteko material bilduma aberastuz doa

33 berriak

36 argitalpenak

41 eskolako zertzeladak historian

## Bilboko Euskal Eskolak (1908-1918)


Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 37.14.08

Fax: 943/ 37.21.54. Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Koordinatzailea: Joxe Mari Auzmendi Erredakzio burua; Ainhoa Azpiroz Erredakzio batzordea: Mikel Estarba, Arantxa Goiburua, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Inanol Agirre, Abel Ariznabarreta, Bego a Bilbao, Marian Bilbao, Felix Basurko, Xabier Isasi, Irene Lopez-Go i, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urza, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Ota o eta Pruden Sodupe. Diseinua: TRAM Grafik Maketazio, aurreinpresioa: Xangorin. Inprimategia: ANZA S.A.L. Azaleko irudia: Myrtha Hebe Chokler (Hik Hasi).

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Onetsia 2001 /XII/20 . Kopurua: 3.500 ale

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

# hik hasik

## euskal hezitzaileen harpidetza behar du



**30 euro urtean**

10 aldizkari eta prezio bereziak topaketetan eta argitaratzen ditugun gainontzeko materialetan

Zure parte-hartzea  
ezinbestekoa zaigu

# harpide zaitetz!

**hik hasi**ren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale  
eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoaz

Izena.....1. Deitura.....

2. Deitura .....Tel.:.....

Helbidea .....Posta Kodea.....

Herria.....Herrialdea.....

Ikastetxea.....Herria.....

IFZ-NAN .....

**Aurrezki Kutxa edo Bankua**

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

**Sinadura**

**HARPIDETZA  
SARIAK**  
(BEZ barne)

**30 euro**

Hego Euskal Herria  
5.000 pezeta  
Ipar Euskal Herria  
200 libera

**hik hasi**

Euskal  
heziketarako  
aldizkaria

Errekalde hiribidea, 59  
Aguila eraikina 1. solairua  
20.018 DONOSTIA.

GIPUZKOA


Tel: 943/ 37 14 08

Faxa: 943/ 37 21 54

# editoriala

# urtarrila

## Urte berri on, ikasturte hobeari!



Urte berriak daka-  
ren ilusioa eta  
indarra erantsi  
behar diogu hez-  
kuntza arloan  
irailean hasitako  
ikasturte berriari

Estreinatu dugu urte berria, 2002. urtea. Urte berri ona opatuz jaso ohi ditugun postalekin batera, desio, asmo eta proiektu berriak agertzen dira. Aitzera begiratu eta urte zaharraren errepasoa egitearekin batera, aitzinera begira jarri eta abagune berriak ikusi ohi ditugu. Zintzilik utzitako lanei heltzeko kementa atera ohi dugu.

Oro har, gizartean sumatzen den giro hori ez da eskola barrura sartzen, ordea. Ikastetxeek SantoTomasetan atea itxi eta Erregeak pasa arte ez dituzte berriro irekitzen. Aurreko asteetan apaindutako gelak hutsik eta argiak itzalirik gelditzen dira. Bi asteren bueltan esnatzen dira, berriz ere atea ireki eta bigarren hiruhilekoari hasiera ematen zaionean.

Eta hortxe dago diferentzia. Kanpoan urte berria hasi den bitartean, eskola barruan ez da ikasturte berria hasi, irailean abiatutakoaren jarraipena baino ez da. Orduan, kanpoan sortzen diren ilusio eta proiektu berriak ez al dira sor-

tzen ikastetxe barruan?

Hezkuntza munduarentzat urte berria irailean hasten da; garai horretan jartzen dira martxan proiektu berriak, prestakuntza ikastaroak, jardunaldiak... Kalean urtarrilean nabari den ilusio, gogo eta indarra irailean antzematen da irakaskuntzan.

Edozein modutan, horrek ez du esan nahi hurrengo irailera arte gauzak baloratu eta eraldatu ezin daitezkeenik. Garai egokia izan daiteke lehen hiruhilekoan egindako urratsei so egiteko eta hurrengo pausoak bideratzeko edo berbideratzeko. Ez dago gaizki urte *naturalak* emandako gertaerak bergogoratzea, lagungarri izan baitaitezke aurrera begirako bidea egiteko.

Horregatik, ez dugu ahaztu behar 2001. urtean Nafarroako Gobernuak euskarazko ikasliburuen inguruan hartu zituen erabakiak, eta horrek euskarazko irakaskuntzan eta euskarazko argitaletxeetan utzi dituen ondorioak. Era berean, 0-3 urteko etaparen arau-

tzeak ere buruhausterik sortu zuen EAEn. Haurren Hezkuntza Eskubi-dearen Aldeko Mahaiaren sorrera bultzatu zuen, eta bere iritzi eta ekarpenak kontuan hartuko dituela hitz eman dio Eusko Jaurilaritzak.

Beste hainbat erakunde ere sortu dira aurtan, hala nola: EHIGE, Euskal Herriko ikastetxe publikoetako guraso elkarteen konfederazioa; BiHe, Gipuzkoako Bigarren Hezkuntzako institutu-tuetako zuzendarien elkarte; *Euskal Herriak bere eskola* ekimena... Nafarroan euskarazko irakaskuntzarako proposamenak egin zituzten ELA, LAB eta EILAS sindikatuek eta Sortzen-Ikaskuntzaren eta Ikasle Abertzaleak erakundeek, ondoren ikastetxeetan proposamena eztabaidatzen hasi direlarik.

Horrek guztiak eragina izango du 2002. urteko hezkuntza arloko jardunetan. Horregatik, nahiz eta ikasturtearen jarraipena baino ez izan urtarrila, kanpoko indarberritzeak hezkuntza ere busti behar du.

# kronika

*Nazio Batuen Erakundeak hizkuntza gutxituak babesteko eta horien irakaskuntza zabaltzeko eskatu dio Frantziari. Azaroan bildu zen NBEko Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Batzardea eta bere kezka agertu zuen gai horren inguruan. Frantziak Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideei Buruzko Ituna sinatu zuen 1990ean eta hainbat arlo ez dituela betetzen ikusi du aipatu batzardeak. Estatuaren batasunari eta herritarren arteko berdintasunari ematen dio lehentasuna, eta ondorioz gutxiengoaren eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak ez ditu betetzen. Horregatik, Hezkuntza Gutxituen Ituna berrestea eta gutxiengoaren kulturak eta hizkuntzak gordetzeko neurriak hartzea gomendatu dio Batzardeak. Irakaskuntza esparruari dagokionez, gehiago saiatzeaz gain, hizkuntza horien irakaskuntza bultzatzeko neurriak har ditzan eskatzen dio.*



## Euskal irakaskuntzarako proposamenak aztergai dira Nafarroako ikastetxeetan

Nafarroako euskarazko irakaskuntzarako proposamenak aztertzen eta eztabaidatzen ari dira herrialdeko ikastetxeetan. ELA, LAB eta EILAS sindikatuek eta Sortzen-Ikasbatuaz eta Ikasle Abertzaleak erakundeek euskarazko irakaskuntzarako proposamenak aurkeztu zituzten azaroaren amaieran egin zen batzar batean, eta han erabakitakoaren haritik, orain ikastetxeetan eztabaidatzen ari dira.

Proposamen horren jatorria Nafarroako Gobernua irakaskuntzarako prestatzen ari den araudian dago. Administrazioan euskara erabiltzeko dekretua onartu ondoren, irakaskuntzako prestatzen ari zela jakinarazi zuten sindikatuek, eta zirriborroaren berri

ere eman zuten. Hezkuntza Departamentuak behin baino gehiagotan eman zuen aditzera zirriborroa lanerako tresna baino ezzela. Dekretua oraindik publiko egin ez bada ere, sindikatuek diotenez zenbait neurri hartzen hasiak dira euskarazko ikastetxeetan banaka-banaka. Horregatik, prestatu dute sindikatuek proposamen sorta hori. Horren aurkezpena egin ostean, beraz, aztergai dago orain ikastetxeetan.

Sindikatuaren esanetan, Hezkuntza Departamentua hasi da ingelesa bitarteko hizkuntza gisa eredu guztietan sartzen. Sindikatuaren iritziz hori oinarri zientifikorik gabekoa eta abiapuntu okerra izateaz gain, murgiltze eredu baldintza dezake. Beste neurri bat langile erdaldunak ezartzearena da, atezainei eta bulegariei ez baitaie euskaraz jakiterik eskatzen. Horrez gain, hainbat ikastetxetara gaztelania hutsen bidaltzen dira komunikazioak administrazioetik. Lanbide Heziketan eta unibertsitatean euskarazko eskaintzak murrizten jarraitzeko asmoa agertzen du Hezkuntza Departamentuak. Gaur egun %0,02k ikasten dute euskaraz. Aitzitik, DBHn %22 dira euskaraz ikasten ari direnak, eta horien beharretara egokitzeko plangintza egitea eskatzen dute sindikatuek. Unibertsitateari dagokionez, estatu ofiziala eta normalizazio plangintza eskatzen dute sindikatuek eta Sortzen-Ikasbatuazek.



## Hezi itzazue haurrak alai.

Bitoriano Gandiaga



### 0-3 etapa elkarlanean arautuko da datorren udaberrirako

Hezkuntza Sailak eta Haurraren Hezkuntza Eskubideen Aldeko Mahaiaik Batzorde bat eratu dute 0-3 etapa arautzeko. Etapa hori arautuko duen dekretua batzorde horretan eztabaidatuko da. Administrazioak egingo du dekretuaren zirriborroa eta urtarrilaren 7rako jakinaraziko du edukia.

Mahairen aldetik batzordean hauek egongo dira: sindikatuetak ordezkarri bana -ELA, LAB, EILAS, CCOO eta UGT-, Haur Eskolen Koordinakundeko ordezkarria eta Guraso Elkarteko beste bat. Eusko Jaurlaritzaren aldetik hiru sailetak ordezkarriak izango dira: Hezkuntza, Gizarte Gaiak eta Nekazaritza Sailak.

Haurraren Hezkuntza Eskubideen Aldeko Mahaia gustura agertu da Hezkuntza Sailaren jarrera irekiaren aurrean. "Gure iritzi eta ekarpenak kontuan hartuko dituztela esan ditugute, eta hori poztekoa da"

Mahaiko kideek azaldu dutenez. "Horrez gain, Hezkuntza Sailak adin horretako haurraren hezkuntza bere ardurapean hartzeko borondatea erakutsi du eta hori ere aurrera-pausoa da". Izan ere, momentu honetan Gizarte Gaietarako Sailaren ardurapean dago etapa hori.

Haurraren Hezkuntza Eskubidearen Aldeko Mahaiaik Hezkuntza Sailaren dekretuak hartu beharreko hiru puntu zein diren azaldu du. Lehenengoa haurraren go-goa eta hezkuntza eskubidea errespetatzea da. Haurraren bizimoduari eta ikuspuntuari ematen diote lehentasuna. Bigarren puntua zerbitzuen kalitateari buruzkoa da. Horizaintzen bada, bizimodu osasungarria eta heziketarako egokia izango da. Horregatik, egoitza aproposak, haur kopuru egokiak eta irakasle talde kohesionatuak eskatzen dituzte, besteak beste. Eta azkenik, dekretuak eredu pedagogiko propioa bultzatu behar duela diote. Haur Eskolek orain arte egindako ibilbidea aintzat harturik, hobetzeko baldintzak behar dira. Haur Eskoletan ari diren irakasle taldeen esperientzian oinarriturik, eredu pedagogikoak honakoa hartu behar du kontuan Mahaiko kideen iritziz: egunerokotasunaz egiten diren ekintzak eta sortzen diren egoerak dira hezigarri, irakaslearen erantzunak integrala izan behar du, haurrekiko lanak pertsonalizatu izan behar du, senideekiko harremanek zuzenak eta sankonak izan behar dute eta abar.

EAEko Hezkuntza Saila hezkuntzako hainbat erakunderekin bilerak egiten ari da gauzak hobetze bidean. Horrela, sindikatuekin egiten ari den bileretan Lan Eskaintza Publikoa, langileen egonkortasuna eta ordezkoen zerrendaren kudeaketa aztertzen ari da. Eusko Jaurlaritzak eskaintza berria aurkeztu zien sindikatuiei, baina horiek ez zuten nahikotzat jo. Langileen egonkortasunari buruzko proposamena hobetu arren, oraindik beste zenbait puntu ukitu eta aldatu beharra ikusten dute. Hezkuntza Sailak esku artean duen beste lan bat lraleren egokitzapena da. Erreforma osoa 2003-2004 ikasturtean egingo bada ere, ikasturte honetan zenbait aldaketak egingo dira. lraleren aldaketa, besteak beste, ikastaroen modalitateari eragingo dio. Hau da, goi mailako ikastaro gehiago eskainiko dira, batez ere hizkuntz hobekuntzari begira. Bestalde, kupoa murrizteko aukera ere aztertzen ari da Hezkuntza Saila. EILAS sindikatuak emandako datuen arabera, 1981-82an, lrale martxan jarri zenean, liberazio kupoa 85ekoa zen. Hurrengo ikasturtean bikoiztu egin zen, eta gaur egun ia milakoa da kopurua. Beste gai bati helduz, frankismo garaian ikastoletan ibilitako andereñoek laguntza jasotzeko aukera izango dute. EAJK, EAK eta IUK legezko proposamen bat aurkeztu dute Legebiltzarrean 1967-68 ikasturtera arte ikastoletan eskolak ematen jardun zuten andereñoen lana ezagutzeko eta diruz ordaintzeko. Aro zailetan egindako lana eskertzeaz gain, andereñoek urteetan Gizarte Segurantzari kotizatu ez izanaren ondorio kaltegarriari aurre egitea da legezko proposamen honen xedea. Ordainaren zenbatekoa 1967-68 ikasturtera arte emandako eskola kopuruaren arabera zehaztuko da.



# Emakumea hezkuntzan

## Gehiengoa bai, baina zertan?





Emakumea eta hezkuntza, hezkuntza eta emakumea. Zer erlazio dago bien artean? Pentsa dezagun pixka bat: maistrak, maistrak, andere oak, amak, jangelako emakumeak, autobusetarako zaintzaileak emakumeak dira nagusi. Ostera, zuzendariak, lehendakariak, ikuskariak, sindikatueta ordezkariek gizonetzkoak dira kasurik gehienetan. Beraz, irakaskuntzan dabilen emakumezkoak gizonetzkoak baino gehiago izan arren, goi karguetan eta ardurako postuetan gizonetzkoak ugariago dira.

Hausnarketarako aitzakia ematen duen gaia da. Zergatik da horrela? Zeren ondorioa da? Beti izan al da horrela? Aldaketarik gertatu al da? Zerbaterainokoa? Nola gaude momentu honetan? Zein joera ikusten dira etorkizunari begira? Batzuk dagoeneko hausnarketa egina dute eta ondorioak ere aterata dituzte. Beste batzuek agian orain hasiko dira horri buruz pentsatzen.

Edozein modutan, Mari Jose Urruzolaren hausnarketa lagungarri izango zaigu. Bera Etika eta Filosofia irakaslea eta Hezkidetzako aholkularia da. Lanbroa Hezkidetzako Kolektiboko kidea ere bada. Gai honen inguruan sei argitalpen egin ditu, eta beste hainbatetan egilekide izan da. Emakumeak historian zehar hezkuntzan izan duen parte-hartzea nolako den azaltzeaz gain, eskola hezkidetzaila du hizpide hurrengo hausnarketan.

## Eskola Hezkidetzailerantz



### Mari Jose URRUZOLA

Etika eta Filosofiako irakaslea  
Hezkidetzako aholkularia  
Lanbroa Hezkidetzako Kolektiboko kidea

**Baiezta al dezakegu oraindik ere egungo eskola sexistak dela, eta beraz, ez dela hezkidetzaila?**

Gaur egungo Eskola Mistoak *sexuen arteko aukera berdintasunaren* itxura ematen du. Baina, eskaintzen digun itxura horren azpitik rol *femenino* eta *maskulinoen* funtzioaren arabera esterotipatutako hezkuntza eskaintzen du. Estereotipo horietatik at dagoen heziketa lantzea proposatzen denean, kasurik gehienetan *femeninoa* maskulinoan integratzen da, eta kito.

Oraindik ere familiaren eta eskolaren testuinguruan hezten delako gertatzen da hori; eta kontestu horiek gizarte sexistaren produktu dira. Horregatik, bere isla dira eta bere interesen arabera funtzionatzen dute.

Gauzak horrela, filosofia hezkidetzailaren ezagutzan sartu aurretik derigorrezkoa da lehendabizi gizarte sexista zer den ezagutzea. Horrela, azterketa horretan familian eta eskolan eskaintzen den heziketaren klabeak aurki litezke, eta baita eman beharko litzaitekeen heziketarenak ere.

Emakumeen gaintik dagoen gizonen kolektiboaren hierarkizazioan oinarritutako antolaketa soziala, hau da, gizarte patriarkala, bi bizitza programa

ezartzen joanda, ondo bereizitutako eta mugatutako bi estereotipo edo "genero"; bata emakumezkoentzat eta bestea gizonetzkoentzat.

Emakumeen gain ugalketa gelditzen da, eta hori bere mantenuaren eta emazte eta amaren rola truke egiten du. Gizonetzkoen lan *produktiboa* eta kudeatzaile ekonomiko, sozial eta politikoaren rola dagokie. Egitura sozial sexista horrek botere politiko eta ekonomikoaren banaketa desberdina sortzen du gizon eta emakumeen artean. Era berean, balio sistema hierarkizatua ere bai. Horrela, gaizki izendaturiko balio maskulinoek kultura maskulinoa definituko dute, eta gaizki izendaturiko balio femeninoek, azpikultura femeninoa.

Gizartea antolatzeko modu horren prozesuan neskek eta mutilek sozializazio prozesu desberdina bizitzen dute. Eta ondorioak ezagunak dira. Sozializazio eragile nagusien bitartez (familia, eskola eta komunikabideak), neska-emakumeek beren gutxiespen kolektiboa onartzea lortzen da. Gizonetzkoen kasuan, eremu guztietan boterea bereganatzea lortzen da, berez egokitutako balitzaie bezala. Garapen ekonomiko, sozial eta politikoaren erantzule rola hartzen dute eta hiritar bezala lehen sexuaren estatusa.



G

## Eskola Hezkidetzailerantz egindako bidearen historia laburra

Testuinguru sozial honetan diseinatzeko da hezkuntza sistema, eta berebat, bere hierarkizazio sexista bertan islatuko da, garai historikoaren arabera moduak aldatuz.

Europar XVI. mendera arte debekatua egon zen emakumezkoek hezkuntzan parte-hartzea. XVI. mendetik XIX. mendera nesken heziketa oso mugatua zen: emazte eta ama izateko hezten ziren, hori baitzen gizarte sexistak ezartzen zien rola.

Frantses Iraultzaren ondoren emakumeak euren artean antolatzen eta Mugimendu Feminista eratzen hasi ziren. Horrela, gizarteko esparru guztietan bizi zituzten egoera komunak elkarrekin aztertzen hasi ziren.

Bizi zuten egoeraren azterketa eginez hauteman zuten nola manipulatu ziren emakumeen kolektiboaren bizi-tza, gorputza, lana eta abar gizartean auzeraz ezarritako helburuen arabera.

Emakumezkoen egoera orokorraren jabetze honetatik abiatuta, hori nola gertatzen zen aztertzen hasi ziren, eta baita hezkuntzan ere. Hezkuntza sisteman nesken egoera nolakoa zen berrikusten hasi ziren, eta lehenago baino uste gehiagorekin hasi ziren aldarrikatzen emakume guztiek hezkuntzarako zuten eskubidea.

Praktikoki XX. mendean lortu zen sozialki, azkenik, emakumeek hezkuntza sisteman sartzeko zuten eskubidea onartzea. Eta hori, zenbait emakumeren aldarrikapenen presioaren ondorioz lortu zen. Horien artean zeuden Emilia Pardo Bazan, ANME eta ezezagunak diren beste asko.

## Euskal Herrian eboluzio bat egon da XX. mendean zehar Eskola Hezkidetzailerantzko bidean.

Zenbait emakumek mende hasieran egindako lanak etorkizunean neskek hezkuntza sisteman pixkanaka-pixkanaka sartzeko bidea prestatu zuten. Besteak beste horretan aritu ziren Karmen Baroja, Maria Maeztu, Maria

Goyri, Adelina Méndez de la Torre eta Benita Asas Manterola.

Horretan lagundu zuten zenbait euskal emakume idazlek ere. Beraien lanetan garai hartako emakumearen egoera errealak sortzen zien kezka adierazten zuten. Emakumeak formazioarako zituen gabeziak seinalatzen zituzten, eta baita orduan emakumeak zituen garapen aukerak ere.

Rufina Azkue, Joakina Garaialde, M<sup>a</sup> Pilar Lekuona, Robustiana Mujika, Margarita Unzalu, Jesusa Alfau, M<sup>a</sup> Mercedes Alonso, Miren Gudiol, Juana Mir, Maria Mutiozabal, M<sup>a</sup> Lucia Gutierrez, Rosa Hierro, M<sup>a</sup> Hita Orokieta, Pilar Munarriz eta beste hainbat idazlek beren lanen bitartez emakumeak hezkuntza sisteman sartzeko zuten garrantzi izugarriaren kontzientzia hartzea bultzatu zuten.

Hasierako hamarkadetan neskek pixkanaka-pixkanaka joan ziren eskoletan sartzeko; Errepublikara garaian ikastoletan eta eskola publiko mistoetan. Geroago, ordea, irakaskuntza mistoa debekatu egin zen Euskal Herrian ere, 1939tik 1973ra, hain zuzen ere. Horrela, neska-mutilak emakumeei eta gizonei ezarritako roleri erantzuten zieten estereotipo *femenino* eta *maskulino* tradizionalen arabera hezten ziren bereizitutako eskoletan. Alabaina, ikastolek mistoak izaten jarraitu zuten.

60ko hamarkadan eskola publikoak pixkanaka-pixkanaka misto bihurtzen joan ziren, azkenean 1984an derri gorrezko bihurtu zirelarik.

1977az geroztik hezkidetzaren aldeko hainbat kolektibo sortu ziren Mugimendu Feministaren barruan: Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Emakumeen Asanbladetak *Emakumea eta Hezkuntza* batzordea, Lanbroa Hezkidetzako Kolektiboa, eta unibertsitateetan, ikastetxeetan, Berrikuntza Pedagogikoko Mugimenduan eta abar sortuz joan ziren beste hainbat. Guztiek lagundu zuten urrats erabakiorra ematen: hezkuntza sistemako egitura sexistaren analisisa egiten, eskolak mantentzen zituen rola aztertzen eta eskolan erabiltzen ziren sexismoaren transmisio mekanismoak detektatzen. Mekanismo horien artean zeuden testu li-

buruak, espazioaren erabilera, jostailuen erabilera, hizkuntza, orientatibidea, eskola antolaketa, giza harremanen heziketa, balioak...

Horrekin guztiaren *Eskola Mistoa*ren egituratik *Eskola Hezkidetzailerara* pauso berriak emateko oinarriak ezarri ziren. Izan ere, eskola mistoak berdintasuna lortu zuen forma aldetik, baina estereotipo sexistak matentzen jarraitzen zuten. *Eskola Hezkidetzaileraren* helburua neskek eta mutilak beraien identitate bereizgarritik abiatuta heztea da, norberaren gaitasunen garapena bultzatuz, nortasunaren eraketa mugatzen duten estereotipoetatik at, eta *femenino*aketa *maskulino*ak bezala hartutako zenbait balio pertsonaren garapen globalerako maila berean direla beharrezko onartuz.

1988an Emakunde sortu zen. Bere ekintzarik nabarmenena *Emakumearentzako Ekintza Positiboko Plana* izan da; eta beronen aurkezpena eta ebaluazioa Eusko Legebiltzarrean. Antolatu izan dituten jardunaldiek eta EAEko emakumeen egoera neurtzen zuten azterketa soziologikoen argitalpenek irakasleen formazioari lagundu diote.

1990ean ezarritako LOGSE legeak zera jartzen du agerian: *hezkuntza zentro guztien helburua pertsonaren garapen integrala da*. Helburu horrek Eskola Hezkidetzaileraren xede nagusiarekin bat egiten du: pertsonaren garapen partzialari mesede egiten dioten estereotipo sexistak gainditzea, pertsona bakoitzaren garapen globalari lagundu ahal izateko, betiere norberaren sexu, adin, etnia... desberdintasunetik abiatuz, baina kulturalki ezarritako estereotipoetatik aldentuz.







**Eskola Hezkide-  
tzailearen helburua  
neskak eta mutilak  
beraien identitate  
bereizgarritik abia-  
tuta heztea da, nor-  
beraren gaitasu-  
nen garapena bul-  
tzatuz, nortasuna-  
ren eraketa muga-  
tzen duten estero-  
tipoetatik at, eta  
femeninoak eta  
maskulinoak beza-  
la hartutako zen-  
bait balio pertsona-  
ren garapen globa-  
lerako maila be-  
rean direla beha-  
rrezko onartuz.**

*Emakumeentzako Ekintza Positi-  
boko Planea* eta LOGSEn planteatuta-  
ko neurrietan oinarrituz, Hezkuntza  
Sailak *Hezkidetzarako Aholkularitza*  
sortu zuen Araba, Bizkaia eta Gipuzko-  
an. Horren bidez, eskoletan hezkidetz-  
a bultzatu nahi zuen. Horrela, irakasleen  
formaziorako hezkidetzako postgra-  
duko bi kurtso antolatu zituen 1992an  
eta 1993an.

Bizkaiko Hezkidetzako aholkulari be-  
zala jardun dudanean ehun orrialdeko  
txosten bat idatzi dut. Bertan 1991-2001  
bitartean ikastetxeetan egindako lana  
laburbiltzen da.

Txosten horretatik ateratako zen-  
bait datuk egindako lana zertxobait  
ezagutzen lagunduko digute. Adibi-  
dez, 1991an Hezkidetzako Mintegiak sor-  
tu genituen. Irakasle sentsibilizatuena-  
k biltzen zituen mintegiak, hots, beraien  
prestakuntza handitu eta ikastetxean  
ekintzak planteatu nahi zituztenak.  
Egonkortasunez funtzionatu dute ha-  
markada batez.

Materialari dagokionez, EAEko  
ikastetxe guztietara hezkidetzako 20  
material banatu dira: triptikoak, koa-  
dernoak eta txartel osagarriak. Hez-  
kuntza ez sexistari buruzko hainbat al-  
derdi agertzen dituzte. Azken xedea es-  
koletan filosofia hezkidetzalea prakti-  
kan jartzeko lagungarri izatea da.

Bizkaiko ia ehun ikastetxek (gehie-  
nak Haur eta Lehen Hezkuntzako zen-  
tro publikoak) jasotzen dute Hezkide-  
tzarako Aholkularitzaren laguntza.  
Ikastetxe horiek beren jardunean hez-  
kidetzako kriterioak sartzeko laguntza es-  
katzen diote Aholkularitzari.

Lan hori hezkidetzaren alde dihar-  
duten gizarteko beste taldeen lanare-  
kin koordinatzen da: Guraso Elkarteak,  
Mugimendu Feministako Hezkidetzako

kolektiboak, Berrikuntza Pedagogiko-  
rako Mugimendua, sindikatuak eta  
zenbait udal.

Nahiz eta ikastetxeen eskaera han-  
dituz joan eta ildo horretan lan egiteko  
prest dauden irakasle asko egon, Hez-  
kuntza Sailak Aholkularitza kentzea  
erabaki du aurten, 1991-2001 bitartean  
lan egindako moduan, behintzat.

*Prozesu historiko honeta-  
ko lorpen eta aurrerapauso  
nagusiak*

XX. mendean zehar emakumeek  
aurrerapauso garrantzitsuak eman di-  
tuzten aurreko mendeetako borroka-  
ren fruituekin eta beraien lan propioa-  
rekin. Hona hemen lorpen horietako  
batzuk:

1. Neskak eta mutilak hezkuntza  
sistemara sartzeko aukera berdintasuna  
maila guztietan. Horrek zera bultzatu  
du:

- Emakumea arlo kulturalen, zien-  
tifikoa, akademikoa eta abar sartzea.

- Lan merkatuan sartzea, nahiz eta  
oso mugatua izan.

- Arlo politikoko parte-hartzea han-  
ditzea.

2. Emakumeak bere helburu pro-  
pioak lortzeko jakintzarako duen esku-  
bidearen onarpen soziala.

3. Emakumeen parte-hartzea hez-  
kuntza sistemako kudeaketan eta  
erantzukizuneko taldeetan.

4. Hezkuntza alorrean emakume-  
ek egindako lan teorikoa, batez ere az-  
ken hamarkadetan.

5. Emakumeek eduki duten prota-  
gonismoa metodo pedagogiko berri-  
tzaileak sortzerakoan eta heziketa es-  
perientziak egiterakoan. Zientzia au-  
rera dadin lortu dute, nahiz eta emaku-

# Azken finean, eskola hezitzaileak pertsona bakoitzarengana hurbiltzea esan nahi du, norberaren indibidualtasunean eta berezitasunean oinarriturik. Horrela, bere askatasunetik abiatuta, norberak aukera dezala nor izan nahi duen.

mearen menpekotasun egoera globalak, balorazio sozial ezak eta politika arloan erabaki guneetan ez egoteak Hezkuntza Erreformak "beste batzuek" egitea bultzatu.

6. Gizonen kontzientzia hartzean egon den eboluzio positiboa emakumeekin eginkizunak konpartitzeko garaian, bai arlo pribatuan eta bai publikoan.

7. Ikastetxeetan egindako esperientzia hezkidetzailleak:

- Ikastetxeetan jadanik hezkidetzeta filosofiarekin martxan dauden Ikastetxeetako Hezkuntza Proiektuak eta Curriculum Proiektuak. Hainbat arlo espezifikotan egindako lanak daude, esaterako:

+ Eskolan ematen den zientzia androzentrikoa zalantzan jartzeko eta gainditzeko egindako lana.

+ Ikastetxeetan gero eta gehiago erabiltzen da hizkuntza ez sexista, ikasle nesken, irakasle emakumeen eta amen presentzia isiltzen ez duten formulak erabiliz.

+ Zenbait ikastetxe ROF edo Ordeñu eta Funtzionamenduko Araudia ikuspegi hezkidetzailetik lantzeko egiten ari diren lana.

8. LOGSEk argi eta garbi ematen du

filosofia hezkidetzaillea praktikan jartzeko agindua.

9. Eskola Hezkidetzaillea eraiki ahal izateko sentsibilizazioan eta kontzientzia hartzean eman diren pausoak ez dira indarkeria kriterioetan oinarritu, baizik eta behaketan, hausnarketan, analisian, elkarrizketan, egiaztapenetan eta estrategia egokien bilaketan.

## Etorkizuneko eskola hezkidetzaillea

XXI. mendea Eskola Mistoaren formatuarekin eta Eskola Hezkidetzaillearen proiektuarekin hasi dugu.

Zer ulertzen dugu Eskola Hezkidetzaillea diogunean?

Eskola Hezitzailearen heziketa diseinuak balio behar du neskek historian zehar emakumeek garatu dituzten bizimoduaren, portaeren eta balioen alderdi positiboak aurki ditzaten. Alderdi horiek komunak dira *kultura femeninoan* eta maskulinoarekiko desberdinak. Ezagutu eta baloratu egin behar dira, lehendabizi emakumeek beraiek, eta gero ikasleek. Eta portaera etikoko pautak bezala proposatu behar dira bai emakumeentzat eta bai gizonezkoentzat. Era berean, ikasleek *kultura maskulinoaren* portaeraren alderdi positiboak ikus ditzaten lagundu behar du, bai neskek eta bai mutilek ezagut ditzaten eta portaera etikorako pautak bihurtu daitezkeen horiek ere.

Beraz, gizatiartze prozesuan emakumeek eta gizonek jarri duten aberatasun desberdina gainditzeko datza, eta pertsona bakoitzaren arabera be-

reizketak egitean, sozialki ezartzen zaion generoa alde batera utzita.

Horrek esan nahi du Hezkuntza planifikatzen denean *genero* kategoria kritikatu hasten dela. Ezen sistema patriarkalak emakumeak eta gizonak zatiatu eta kokatu egin ditu kriterio hauetan oinarrituz: espeziearen ugalketan zuten lekua, lan banaketan zuten presentzia, eta botere hierarkian zuten banaketa, beti gizonak emakumeen gainean kokatuz eta genero maskulinoa femeninoaren gainean.

Azken finean, pertsona bakoitzarengana hurbiltzea esan nahi du, norberaren indibidualtasunean eta berezitasunean oinarriturik. Horrela, bere askatasunetik abiatuta, norberak aukera dezala nor izan nahi duen eta zein izango den bere kolaborazioa justiziarekin eta askatasun kolektiboekin.

XXI. mendeko hezkuntza sistemaren jomuga Eskola Hezkidetzaillearen eraikuntzan kolaboratzea da. Eskola horrek orain arte emakumeek eta gizonek jaso duten heziketa partziala gaindituko du eta pertsona bakoitzaren garapen integrala bultzatuko du.

Azken mendean eman diren pauso positiboak onartzeak etorkizun hurbilean lortu behar ditugun zenbait helburu ikusarazten dizkigu. Besteak beste, honako hauek:





# G A I A

## Emakumea hezkuntzan

### Gehiengoa bai, baina zertan?

1. Ikasle bakoitzaren nortasun pertsonal indibiduala erreperatzea, norberaren bizitza proiektua aukeratzeko askatasuna eta ezberdina izateko eskubidea mugatzen duten estereotipoetatik at mantenduz.

2. Kultura femeninoko balio positiboak erreperatzea eta azalaraztea, giza garapen pertsonal eta kolektiboan aurrerapausoak emateko beharrezko direla aitortuz. Hau da, esperientzia femeninoa emakumeen eta gizonen portaerarako erreferentzia sinboliko bihurtzea.

3. Eskolan, familian eta komunikabideetan, hots, heziketa eragile nagusienetan, hezidetzatzen lana bultzatuko duen balio sistema agerian jartzea.

4. Ikastetxeetan *Hezikidetzatzen proiektuak* praktikan jartzen jarraitzea.

5. Eskolak pertsona izaten ikasten den leku bihurtzea.

6. Neskak, mutilak eta gazteak hiritar izan daitezen hezteko, hau da, politikoak izatea, hiriaren eraikuntzan eta herrien garapen globalean kezkatutako eta inplikaturako gizakiak.

7. Diziplina zientifiko bakoitzaren edukia birformulatzea, horrela, egungo formulazioa osotasunean birbegiratu. Izan ere, historikoki zapalduak kulturaren ekarpena isildu egin izan dute.

8. Egungo eredu teknologikoan eskolak zein baliotan eta zein kriterioekin antolatzen ari diren birbegiratu. Bitarteko teknologikoak bizitza garapenerako eta gizaki guztien ongizateko hobetzeko tresna bihurtu behar dira.

9. Komunikabideekin negoziatzea pertsonen arteko menpekotasun harremanak mantentzen eta bultzatzen dituzten irudiak eta programak kentzeko, eta baita sexu, etnia, adin, estatus ekonomiko, aukera pertsonal eta abarrek egiten den edozein diskriminazio bultzatzen dituztenak ere. Oterantzean, gizakien garapen globalari mesede egiten dioten irudien eta programen sorkuntza bultzatu behar da.

10. Neska-mutilek pertsona izaten ikasten dezaten jarrerak aldatu behar dira, eta horretarako, familiako heziketa lanarekin koordinatu behar da.

## Filosofia Hezikidetzatzen sarrera liburua

**Mari Jose URRUZOLA**

Maite Canal argitaletxea

Liburu honen helburu nagusia filosofia hezikidetzatzen ezagutzen has-teko bidea irekitzea da.

Oro har, hezitzaile guztiei zuzendurik dago, eta bereziki irakasleei. Batez ere, beraien lanak pertsonen garapen integratzean lagun dezakeela konturatu ez diren horiei guztiei.

Filosofia hezikidetzatzen egungo heziketa sexistaren klabeak azaltzen saiatzen da, bai familian eta bai eskolan. Heziketa horrek maila pertsonalean eta kolektiboan dituen ondorioak aztertzen ditu. Pertsona eredu berria proposatzen da, *femeninoa* eta

*maskulinoa* estereotipo kulturalak gainditu eta norberaren gaitasunak indartzen dituen garapen integratze bultzatzen duena. Pertsonaren garapena posible egingo duen Eskola planifikatzen da, horrela oinarri hierarkorik gabeko gizartea eratzen, planifikatzen eta aurrera ateratzen lagun dezan, betiere garapen etikoko kriterioak erabiliz.

Liburu honek, hezikidetzatzen ikuspegitik, PEC, PCC eta ROFa egiteko nahiko ezagutza ematen du.

Hezitzaileen sentsibilizazioa bultzatzeko hainbat aktibitate proposatzen ditu.

**Filosofia hezikidetzatzen egungo heziketa sexistaren klabeak azaltzen saiatzen da. Pertsona eredu berriak proposatzen ditu, *femeninoa* eta *maskulinoa* estereotipoak gaindituz**



# Emakumezko irakasleak

## EAEko irakasleak:

Ondorengo tauletan gaur egun irakaskuntzako etapetan orotara zenbat irakasle dabilzan agertzen da, eta horietatik zenbat diren emakumezkoak. Haur eta Lehen Hezkuntzan emakumezkoen presentzia oso nabaria da: Haur Hezkuntzan %93,6 emakumezkoak dira EAEn eta Nafarroan %96,2. Lehen Hezkuntzan EAE %78,1 dira emakumezkoak eta Nafarroan %69,8. DBHn EAEn %62,1era jaisten da kopurua, eta Nafarroan %53,2ra. Batxilergoan %56,3 dira EAEn eta %45,6 Nafarroan, hots, erdia baino gutxiago. Lanbide Heziketan, ostera, gizonetzkoak gehiago dira; emakumezkoak %37,8 eta %35 dira, hurrenez hurren. Beraz, etapak igo ahala, gizonetzkoen kopurua igo egiten da. Baina, oro har, emakumezko irakasleak gizonetzko irakasleak baino gehiago dira.

Bizkitartean, zuzendaritza kargua betetzen duten emakumezkoak gizonetzkoak baino gutxiago dira. EUSTATEk 1994an argitaratu zuen *EAEko biztanleria eta jarduerari buruzko inkestako* datuen arabera, urte hartan Lehen Hezkuntzan 9.723 irakasle emakume zeuden eta horietatik 451 zeuden zuzendari funtzioarekin, hots, %4,6. Gizonetzkoen kasuan, ostera, 2.564 irakasle zeuden guztira eta zuzendari lanetan 268, hau da, %10,4.

**Orotara, EAEko irakasleen artean emakumezkoak %68,5 dira, eta Nafarroan %62,8**

<b>Irakasleak orotara</b>	Guztira	27.965	
	Emakumeak	19.157	<b>%68,5</b>
<b>Haur Hezkuntzako irakasleak</b>	Guztira	4.307	
	Emakumeak	4.034	<b>%93,6</b>
<b>Lehen Hezkuntzako irakasleak</b>	Guztira	8.561	
	Emakumeak	6.685	<b>%78,1</b>
<b>Derrigorrezko BHko irakasleak</b>	Guztira	10.458	
	Emakumeak	6.495	<b>%62,1</b>
<b>Batxilergoko irakasleak</b>	Guztira	6.197	
	Emakumeak	3.487	<b>%56,3</b>
<b>Lanbide Heziketako irakasleak</b>	Guztira	3.233	
	Emakumeak	1.221	<b>%37,8</b>

Iturria: *Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila. 1999/2000 ikasturteko datuak.*

## NAFARROAko irakasleak:

<b>Irakasleak orotara</b>	Guztira	7.519	
	Emakumeak	4.725	<b>%62,8</b>
<b>Haur Hezkuntzako irakasleak</b>	Guztira	849	
	Emakumeak	817	<b>%96,2</b>
<b>Lehen Hezkuntzako irakasleak</b>	Guztira	2.053	
	Emakumeak	1.434	<b>%69,8</b>
<b>Derrigorrezko BHko irakasleak</b>	Guztira	1.319	
	Emakumeak	702	<b>%53,2</b>
<b>Batxilergoko irakasleak</b>	Guztira	316	
	Emakumeak	144	<b>%45,6</b>
<b>Lanbide Heziketako irakasleak</b>	Guztira	689	
	Emakumeak	241	<b>%35,0</b>

Iturria: *Nafarroako Gobernua. 2001/2002 ikasturteko datuak*





# G A T A

## Emakumea hezkuntzan

### Gehiengoa bai, baina zertan?



## IPARRALDEko irakasleak:

Iparraldeko irakasleriaren artean ere emakumezkoak gehiengoa dira. Seaskan, esaterako, 161 irakasle dira orotara, eta horietatik 125 dira emakumezkoak; hau da, %77,6. Etapaka aztertuz gero, Ama Eskolan eta Lehen Mailan 98 irakasletatik 92 dira emakumezkoak; kolegioan 51tik 28 eta Lizeoan 12tik 5.

Eskola publiko elebidunean ere gauzak ez dira aldatzen. Akademia Ikuskaritzak emandako datuen arabera, Baionako 2. barrutian 35 irakasletatik 31 emakumezkoak dira. Gai nontzeko barrutietan portzentaiak ez dira asko aldatzen.

## Iparraldean ere emakumezko irakasleak gizonezkoak baino dezente gehiago dira



## Irakasle Eskoletako ikasleak

Gaur egun irakasle gehienak emakumezkoak baldin badira, etorkizunean ere horrela izango dela esan daiteke Irakasle Eskoletako ikasleak kontuan hartzen badira. Irakasle izateko ikasten

ari diren gehienak emakumezkoak dira. Hurrengo taulan 2001/02 ikasturtean matriculatuta dagoen ikasle kopurua agertzen da, euskal eta erdal adarretakoak batera daudelarik.

HUHEZI-Eskoriatza	Guztira	264	
	Emakumeak	242	%91,7
Bilboko Irakasle Eskola	Guztira	2.196	
	Emakumeak	1.809	%82,4
Donostiako Irakasle Eskola	Guztira	1.199	
	Emakumeak	970	%80,9
Gasteizko Irakasle Eskola	Guztira	1.132	
	Emakumeak	775	%68,5
Iruñeko Irakasle Eskola	Guztira	645	
	Emakumeak	549	%85,1

Iturria: EHU/UPV, NUP/UPNA eta HUHEZI. 2001/2002 ikasturteko datuak.

# Emakumeak kargudun postuetan

Kargudun postuetan gizonetzkoak emakumezkoak baino gehiago dira irakaskuntzan ere. Haatik, horrek ez du esan nahi emakume zuzendaririk edo emakume lehendakaririk ez dagoenik. Bat baino gehiago daude, eta gero eta gehiago. Horietako hirurengana jo dugu beraien postutik egoera nola ikusten duten jakiteko.



**Nekane AGIRRE**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuordea

**Hezkuntza Berritzatzeko zuzendaria izan zinen aurreko legegintzaldian eta orain Hezkuntza sailburuordea zara. Zer garrantzi eta esanahi du horrelako postuetan emakume bat egoteak? Ezer aldatzen al da?**

Emakumeok bizitza politiko eta publikoan eta erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzen dugunean, eta erabakiak hartzen direnean, emakumeen balio, jarrera eta interesak gehiago hartzen dira aintzat. Adibidez, azkenengo legegintzaldian hezkidetzako eite batzuk landu ditugu, eta garrantzi handia ematen orientabideari. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan lantzeko materiala ere atera genuen: "Irakaskuntza-lanbide orientazioko hezkidetzako programa bigarren hezkuntzarako: BIDEAK EGITEN". Are gehiago, hezkuntza sistema hasieratik berrikusten hasi gara hezkidetzaren ikuspuntutik. Horrela, hezkidetzako eta Haur Hezkuntzako irakasleen prestakuntzarako materiala argitaratu dugu.

**Lehen Inaxio Oliveri zegoen zure gainetik eta orain Anjeles Iztueta. Aldaketarik sumatu al duzu gizonetzko bat egotetik emakumezko bat egotera?**

Bata zein bestea goi mailako profesionalak eta pertsonak dira. Bakoitzak bere ibilbidea du, profesional zein politikoa. Horrek eragina du, noski, bizitza, politika eta arazoei aurre egiteko jarreran. Emakumea izateak sentsibilizatu eta beste ikuspuntu bat ematen duela argi dago, eta baita beste estrategiak ere. Gizonetzkoak, berriz, orain arte erraztasun handiagoarekin ibili dira erabakitzaile diren lanpostu hauetan.

**Instituzioetako karguetan gero eta emakume gehiago egoteak zer adierazten edo islatzen du?**

Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun egoera gainditzeko emakumea botere eta erabaki guneetan sartu behar dela garbi dago. Emakumeak gizonarekin konpartitu behar du eremu publiko eta pribatua. Instituzioetako karguetan emakume gehiago egoteak adierazten du pauso batzuk eman direla berdintasunerako bidean.

Emakumeak erronka berriak hartzen ditu, eta gaur egun, goi mailako prestaketa eta kompetentzia dituela esan genezake. Besteak beste, funtzioen banaketan.



**Aines DUFAU**

Ikas Pedagogia Zerbitzuko zuzendaria

**Zein da Ikas-en daukazun kargua?**

Gaur egun, Ikas-eko zuzendaria naiz. Kargua izan zitekeen 1997an zutik ezarri egitura hau behar bezala garatu balitz. Alabaina, hiru sailen ardura badu Ikas-ek: euskal irakaskuntzako dokumentazio zerbitzua, pedagogia saileko animazioen antolatzea eta ikasmaterialaren sortzea, argitaratzea eta hedatzea. Lau langile baizik ez izanik lan horien guzieren eramaiteko (bosgarren postu bat hutsik dago une honetan), neurea karga da kargua baino. Hots, etxe tipiko anderea sehi, gogoz eta amodioz ari izanik ere.

Bestalde, Ikas elkarte da, erakunde baino. Horrek ere postuari ez dio itxura bera ematen, ez eta edukia ere: elkarte izateaz gain, euskal irakaskuntzako lau sareetako ordezkariak bilduz (sare publikokoak, girstinokoak, ikastoletakoak eta AEK-koak), erabakiak eta kudeantza ez dira pertsona baten baitan finkatzen, baizik eta jende multzo batekin hitzartzen. Erabaki hitzartuen eta ekimen personalen arteko orekan oinarritzen da ene postua.

**Iparraldeko irakaskuntzako erakunde eta elkarteetan emakumeen presentzia eta parte hartzearen arteko erlazioa nolakoa da? Erran nahi baita gauza bat dela emakume asko egotea (presentzia) eta beste bat kargudunak izatea edo ardurak edukitzea (parte-hartzea).**

Irakaskuntza saileko elkarte batzuk erakasleenak dira, eta sare bakoitzak berea dauka: Erakasleak elkarte sare publikoan, Pindarra sare girstinoan, ikastolena eta AEK). Beste erakunde batzuk burasoenak

dira: Ikas-Bi sare publikoan, Euskal Haziak sare giristinoan eta Seaska. Erakunde bakar bat dago: frantses administrazioko "Hezkunde nazionala".

Estatistika zehatzik eman gabe, egoera honela laburbil daiteke: erakasle gehienak emazteak dira; buraso ardura emazteen esku da gehienik, baina gorago aipatu elkarteburuak gehienetan gizonak dira.

Erakunde bakarra den Hezkunde nazionalean, ministroa gizona izan ohi da; gizonak ere Akitania mailako eta Departamendu mailako postu gorenetan; maila apalagoan emazte gehiago (emazteak gehiengo izan gabe ere).

### **Prestakuntza aldetik, hezkidetzak lantzeko zerbait egin al da?**

Lehenik, emazteek kargu gehiago izan nahi dutenez aztertu behar da. Kargurik ez badute nahi, zergatik ote? Ez zaielakoan interesatzen ala nahi lukete baina sobera behaztopatuak dira postu horien hartzeko? Giltza heziketan izan liteke. Hain zuzen, Eguberri honetako opari katalogoen azterketa egin dute Mix-cité izeneko elkartek eta frantses soziologo batzuek. Hona emaitza: neskendako eta mutikoendako jostailuak bereiz saltzen dira. Neska ttipi-ttipitatik etxeraren eta etxekoen arduraren hartzera prestatzen dute jostailuek, eta mutikoak, aldiz, esfera publikoan aritzera (sail teknikoetan, zientifikoetan...), ekimen pertsonala eta irudimena landuz. Alor honetan proposatzen den jokabidea zera da: jostailu mota guztiak neska zein mutikoenzatzat egitea, bereizketarik gabe, eta haurrak edozeinekin, erran nahi baita etxeko zein zientzia alorretakoekin, jostatzera bultzatzea.

### **Nola ikusten duzu emakumeen egoera irakaskuntzan?**

Begien bistakoa dena baizik ez dut erranen, hemen ere zifrarik eman gabe: Lehen Hezkuntzan emazteak dira nagusi (%80 nonbait han); Bigarren Hezkuntzan gizon gehiago dira, eta unibertsitatean gizonak nagusi dira.

Hots, karikaturatzeko, emazteek hezitzaile lana (lan dorpea!) dute gehienbat. eta jakitatearen transmisioa gizonak, batez ere.

Menturaz, hurrek emazteez eta gizonen duten irudia aldatuko litzateke gizon-emazte proportzioa Haur Hezkuntzatik unibertsitatearaino orekatzen balitz. Gainera, kontuan har dezagun haur anitz Bigarren Hezkuntzara heldu arte, kasik emazteak baizik ez direla inguratuak. Anitz idatzia izan da horrek haurren baitan duen eraginaz: mutikoenzatzat ez da on, ez eta neskenzatzat ere, emaztea *itogarria* gertatzen baitzaie eta bakan ikusten den gizona, berriz, *idealizatu*a. Maiz gizon-emazte rol banaketaz kezka plazaratzen dira etxeko arduari doakionez, baina gutiago hezkuntzari doakionez.



**Mila BAREA**

Sortzen-Gurasoak elkarteko idazkaria eta Iruñeko Frantzisko Deuna eskolako guraso elkarteko kidea

**Irakasle gehienak emakumezkoak dira. Zer gertatzen da guraso elkarrean eta guraso eskoletan? Amak ala aitak dira gehien parte hartzen dutenak?**

Ni partaide naizen guraso elkartean eta ezagutzen ditudan gehienetan emakumezkoak dira nagusi. Gure guraso elkarteko batzorde guztietan emakumeon presentzia nagusitzen da diferentzia handiz.

**Zer erlazio dago presentziaren eta karguaren artean? Hau da, gauza bat da emakume asko egotea (presentzia), eta beste bat kargudunak izatea edo ardurak edukitzea.**

Orain arte erlazioa nahiko orekatua zegoen. Izan ere, urteetan batzordean gizonetzko bat besterik ez dugu izan. Baina, aurtun lau gizon gehiago sartu dira, eta guraso elkartean parte hartzen dutenekin konparatuz, proportzioa handitzen ari dela esan daiteke.

Behin beste guraso elkarteko ama batekin hizketan jardun nintzen, eta zera komentatu zidan: ikastetxe batean arazoak daudenean gizonetzkoak gehiago inplikatzeko direla, eta arazorik ez dagoenean desagertu egiten direla, funtzionamendu arrunta amen esku gelditzen delarik.

Guk oso garrantzitsua den batzorde bat daukagu, teresianas deitzen dioguna. Gure ikastetxea Teresianas izeneko ikastetxe batera mugitu nahi dute eta ez ditu gutxieneko baldintzak betetzen. Horregatik, batzorde hori aldaketa horren aurka mugitzen ari da, eta bere lana politikoekin hitz egitea da, burokrazia. Kasualitatez emakume bakar bat dago batzordean, eta beste guztiak gizonetzkoak dira. Arrazoi izango ote du nire lagunak?

**Karguetan dauden gehienak zer dira aitak ala amak?**

Gehienak amak dira.

**G A I A**  
Emakumea hezkuntzan  
Gehiengo bai, baina zertan?





# myrtha hebe chokler

Buenos Aireseko (Argentina)  
Psikomotrizitate Eskolako  
zuzendaria



Hurrek bizi duten errealitate soziala  
eta hezkuntza errealitatea eraldatzeko  
beharretik sortzen da hausnarketa eta  
praktika psikomotriza



Agian  
intelektualki  
adimentsuak  
izango dira neska-  
mutil batzuk, baina  
emozionalki oso  
hauskorak dira,  
beti arrakasta lortu  
nahian ibili direnez,  
atsekabez  
betetako bizitza  
dutelako. Horrek  
porrot sentimendu  
handia sortzen du,  
eta ez da eskola  
porrota soilik,  
bizitzako porrota  
baizik

Myrtha Hebe Chokler izena psikomotrizitatearekin lotu behar da, ezbairik gabe. Psikologian eta Fonaudiologian doktorea den emakume argentinarraren hau Fundari (Uneen Eskubideen Aldeko Fundazioa) erakundeko zuzendaria da. Kargu bera du Buenos Aireseko (Argentina) Psikomotrizitate Eskolan eta Catamarcako Unibertsitate Nazionaleko Uneen Garapenaren Arreta Goiztiarraren ikasketetan.

Psikomotrizitatearekin eta haurren garapenarekin lotuta dauden beste hainbat nazioarteko erakundetako partaide ere bada, eta zenbait unibertsitatetan eskolak ematen ditu. ASEEFOP (Psikomotrizitate Prestakuntzako Eskolen Europako Elkarte) erakundean ere ikastarok ematen ditu.

Munduan zehar harat-horant ibiltzen delarik, Euskal Herrira etortzeko abagunea ere izan du. Aitzakia Bergarako UNEDeko Psikomotrizitate Eskolak eman dio. Ezen, eskola horrek Psikomotrizitate Praktikako V. Jardunaldiak antolatu ditu Gasteizen, eta bertan parte hartu du hizlari gisa Myrtha Hebe Choklerrek.

**Haurren garapenean autonomiak duen garrantzia aipagai izan dugu jardunaldi hauetako lehen hitzaldian. Kontzeptu horiek modu batean baino gehiagotan uler daitezke. Zure abiapuntua zein da?**

Nire abiapuntua errealtatean dagoen sakoneko eztabaida bat da. Haurren garapenaz edo haurren garapen psikologiaz mintzatzen diren askok haurra abstraktuki planteatzen dute. Garapenak zein etapa jarraitzen dituen aipatzen dute. Baina errealtatean zera planteatu behar dugu: zer subjektu motari lagundu nahi diogun hazten. Zeren haurra ez baita zerbait abstraktua.

### **Nolakoa da haurra?**

Nik bi subjektu mota bereizten ditut. Bata librea, autonomoa, bere barneko segurtasunetik abiatuta harreman bat konpartitzeko gai dena, erlazio bateko partaide dena eta integratua sentitzen dena. Bestea esanekoa, sozialki egokitua edo egokitu gabea (presiozko giroa ukatu duelako bere interesei, beharrei eta ahalbideei erantzuten ez dielako). Haur bat bera den bezala, bere aukera eta mugekin, ulertzen ez duen eta kontuan hartzen ez duen giro batek presionatua sentitzen bada, bi erreakzio mota baino ez ditu. Lehenengo urduritasuna, hiperaktibitatea, agresibitatea; horiek dira oposizioa eta asaldatzea adierazteko moduak. Ez dago prestatua bere inguruak eskatzen dizkion gauzetarako, ez da gai horretarako, eta erreakzio horiekin erantzuten du. Batzuetan patologikoa bihurtzen da eta beste batzuetan ez. Bigarren erreakzioa men egitea da, berarekin nahi dutena egin dezaten onartzea.

Orduan, subjektu autonomo eta libre baten aldeko apustua egiten dugu, bere ahalbideen eta mugen kontziente den subjektuaren aldekoa, bere interesak berarentzat eta berarekin dagoen helduarentzat interesgarriak direla kontziente den subjektuaren aldekoa. Zeren ez dugu ahaztu behar haurrentzat gauzak interesgarriak direla helduarentzat ere hala direlako eta honek baloratu egiten dituelako. Horrela izan





behar du, eta ez alderantziz; helduarentzat interesgarria delako ez du zertan interesgarri izan behar haurarentzat.

Horrenbestez, subjektu autonomo, aske, kritiko eta segurua hazi nahi badugu, egoerak sortu behar ditugu. Zeren hori ez baita jaiotzetikoa, ez da edozein baldintzatan lortzen.

**Zein egoera sortu behar ditugu subjektu autonomo bat hazteko eta hezteko?**

Baldintza subjektiboak eta objektiboak. Batzuk barrutik eragin beharrekoak dira, eta beste batzuk ingurumenak bultzatu behar ditu, haurra gero eta autonomia maila handiagoa hartzen joan dadin.

**Zein dira haur batek autonomo izateko eskuratu behar dituen baldintza subjektibo horiek?**

Derrigorrezko baldintza bat segurtasun afektibo eta emozionala da. Barneko segurtasun hori inguruan dituen helduekiko duen loturen kalitatearen arabera da. Segurtasun lotura hori, ulertzen, laguntzen eta babesten duen helduak ematen dio, ez beti gehiago lortzera bultzatzen duen helduak. Adibidez, horrelako helduek esertzeko esaten diotenean, ez da nahikoa izaten eserita egotea, geldirik egon behar izaten du; gelditzen denean oinez ibili behar izaten du; oinez ibiltzen denean hitz egin behar izaten du, eta abar. Hau da, inoiz ez du lortzen helduaren desioa betetzetik. Haurrak lorpenak erdiesten ditu, baina inoiz ez dira nahikoa helduarentzat. Honek beti azterketak jartzen dizkio, probak egiten dizkio ea gai

den edo ez ikusteko, ea irabazten duen edo ez ikusteko... Horrela, haurra bere buruarekin eta helduarekin zalantzati senti dadin lortzen du. Ez du nota txarra ateratzen beretzat gaizki egin duelako, baizik eta besteen aurrean onarpena eta afektua galtzen dituelako.

Guri ere gauza bera gertatzen zaigu lanean norbaitek zerbait gaizki egin dugula esaten badigu. Ez da objektiboki ondo egin ez dugun zerbait soilik, horrez gain ezgai, balio gabetuak eta irainduak sentitzen gara. Are gehiago haur baten kasuan, tresna askoz ere gutxiago dituelako egoera horrek berekin darraren alderdi emozional hori irudikatzen.

Horregatik, autonomoa izateko lehenengo egoera harreman eta loturen bitartez ingurumenak emandako segurtasun emozional nahikoa izatea da. Harreman horiek bere buruarengan konfiantza izan dezan ahalbidetzen diote haurari, autoestimua gradu bat ematen diote. Horrela, zera pentsatuko du haurrak: "okertu naiteke, baina horregatik ez dut arriskuan jartzen bestekin dudan harremana, lotura, eta onartua izaten jarraitzen dut".

Beste elementu garrantzitsu bat gorputzaren askatasun eragilea da, hau da, norbera bere gorputzaren jabe izatea eta tresna bezala erabiltzea lortu nahi diren proiektuetarako. Bakoitza bere gorputzaren jabe dela sentitzea autonomiaren elementu garrantzitsua da. Zeren norbait seguru eta orekatua egoteko eta bere gorputza maneiatzeko eta menperatzeko gaitasunik gabe sentitzen bada, ez da seguru sentitzen emozionalki. Eta beraz, ez da autonomoa. Gorputzaren emozio segurtasun gabeziari lotuta sentitzen da.

**Segurtasun emozionala edukirik eta gorputzaren jabe izanik, nolako ekintzak burutuko litzuke haur batek?**

Ekintza proiektuek, hots, norberak bere buruari ezartzen dizkion eginkizunek edo zereginek norbere buruari eta inguruneari buruz duen ezagutzarekin dute zerikusia, bai haurren kasuan eta bai helduen kasuan. Adibidez, niri ez zait burutik pasa ere egiten 20



Gaur  
egungo  
jostailuak  
enrealitateari  
oso itsatsirik  
daude eta  
ez dute  
pentsatzeko  
balio,  
ez baitira  
eraldagarriak

Ez dugu  
hausmarketarik egin  
behar eskola edukiak  
zein metodo  
pedagogikorekin  
ikasiko dituzten  
habeto jakiteko, baizik  
eta haurra subjektu  
autonomia izateko  
baldintzak babesteko  
eta zaintzeko. Gure  
eginkizuna prebentzio  
lana egitea da.  
Gutxienez, aipatu  
arazoak ez dituzten  
haurrak hazten sailatu  
behar dugu

metroko tranpolin batetik salto egiterik beldurak akabatzen naizelako eta segurtasunik ez daukadalako. Beraz, ez dut horrelakorik planteatu ere egiten. Haatik, norbaitek horretara bultzatzen banau eta nire bizitza horren arabera dagoela esaten badit, seguraski arriskatu egingo naiz. Baina ekintza bera gaizki egingo dut, segurtasunik gabe egongo naiz...

Modu horretara nirea ez den proiektu bat gauzaten ari naiz, nire gaitasunekin eta aukerekin zerikusirik ez duena. Beste baten proiektua da, beste batek baloratua.

Haurren kasuan gauza bera gertatzen da. 6-7 hilabeteko haur bat igerilekuaren ertzean jartzen badugu eta objektu bat uretara botatzen badiogu, haurrak objektua nahiko du eta eskua luzatuko du. Ez da gai uretara eroritakoan zer gertatuko zaion aurreikusteko. Bere adimenak ekintza bat soilik ahalbidetzen dio: eskua luzatzea objektua dagoen lekura. Beraz, nahiz eta uretara erori, ez da nahi duelako erortzen, ez du uretara bota edo ez botaren artean aukeratzen. Hortaz, ez da autonomia. Eta are gutxiago helduaren irribarreak erakarri eta liluratzen badu. Ondorioz, helduak konfiantza eta segurtasuna emateko ordez zailtasunen aurrean jartzen du haurra.

**Jar iezaguzu beste adibide bat.**

Beste adibide bat jarriko dizuet. Nekez ibiltzen den haur bat, oraindik bere gorputzaren oreka mantendu ezinik dabilena, hormaren kontra jartzen du helduak, eta bera metro bateko distantziara jarriz, haurrari beregana hurbiltzeko esaten dio. Haurrak kalkulu mordoxka egin behar ditu: norantz mugitu behar duen gorputza hanka behar duen lekura mugitzeko, distantzia hori ibiltzeko nola koordinatu behar duen, erortzen bada zer gertatuko zaion... Esfortzu itzelaren ondoren pauso bat ematen du, eta normalean heldua beste horrenbeste atzeratzen da. Haurrak berri ere gerturatzeko antolaketa espazial bat egin behar du bere buruan, distantziaren arabera eta ez erortzeko orekaren arabera. Haurrak sentitzen du helduak lagundu egin beharrean baldarra dela esaten diola. Pentsatu, antolatu eta kalkulatu guztian okertu egin dela uste du. Horrelako ekintzetan haurrak bere gaitasunekiko konfiantza galtzen du. Izan ere, berak pertzepzio bat programatzen badu eta helduak egoera ezagupenean jartzen badu, bere buruarenganako konfiantza izateko aukerak galtzen ditu progresiboki. Orduan, dependentzia prozesu bat sortzen edo indartzen hasten da, eta beti helduak zer esaten dion itxaroten egongo da. Ezingo du bere kabuz erabaki.

Gu oso ohituta gaude iniziatiba sor-





tzailerik ez duten haurrak ikusten eskolan, edo agresibitate handia dutenak ere bai. Agresibitate hori erreakzio bat da. Zerena? Bere proiektuak entzun eta baloratu ez izanarena.

### **Zein dira autonomo izateko baldintza objektiboak?**

Haurren inguruak osatzen du alderdi objektiboa. Helduak haur bakoitzaren adinera egokitutako proiektuak prestatu behar ditu, egokitu egin behar ditu. Haur bakoitzarentzako arropak, jostailuak, giroa eta ekintzen iraupena ez dira berdinak.

### **Haurra autonomo izan dadin, zer egin behar du helduak? Nola lagundu behar dio? Zein da helduaren funtzioa?**

Haurri hezten lagundu behar dio, eta horretarako, lehenabizi haurra ezagutu behar du. Haurra ez da abstraktua eta ezta liburuan agertzen den 4 urteko haurra ere. Izena duen haur konkretua da, historia jakina duena, bizipen batzuk dituena, gogo, beldur eta irrika jakinak dituena, gustatzen zaizkion eta gustatzen ez zaizkion gauzak dituena.

Haurren ezagutza sakona izan behar du, ez azalekoa. Hori da irakasle, hezitzaile eta hurrekin lana egiten dugun guztiok dugun desafioa. Eñaut, Alaitz eta Anerekin egin behar dugulan, eta ez hirugarren mailako ikastaldearekin.

Familiek beraiekin jokatu izan duten bezala jokatzen dute haur hauekin. Nolanahi ere, profesionalak ez dute

hori egin behar. Ikuspegi profesionaletik garrantzitsua iruditzen zait haur bakoitzarekin dugun proiektua zehaztea. Adibidez, esaneko haur baten proiektua baldin badaukat, haur horrek nik nahi dudana, nik nahi dudana bezala eta nik nahi dudanean ikas dezan nahi badut, nik irakasten dizkiodan ikasketzak indartuko dizkiot eta bere kabuz ikas dezakeena baztertu eta baliogabetu. Ostera, haur autonomo eta ikertzaille baten proiektua baldin badaukat, haur horrek bere potentzialtasunak, trebeziak eta gaitasunak ahalik eta hobekien zein baldintzatan erabil ditzakeen ikusiko dut. Esate baterako, 6 hilabeteko haur batek jostailuekiko kuriositatea eta arreta izan dezan, berari egokitutako jostailuak eskaini behar zaizkio. Jostailu handiegiak eskuratzen bazaizkio, beldurtu egingo da eta ez ditu erabiliko.

### **Jostailuei zenbateko garrantzia ematen diezu?**

Handia. Garrantzitsua deritzot bat-bateko ekintza oinarritat harturik eta bat-bateko jolasak haurrentzat duen aberastasuna kontuan harturik, jostailua errealitateko objektu batean nola eraldatzen den ikusteari. Adibidez, hodi bat haurren jolasean etxe bateko ate bihur daiteke. Metamorfosi hori nola gauzatzen den azaldu dut nire hitzaldian.

Haurrak eraldaketa horiek egiteko aukera ematen duten jostailuak erabili behar ditu autonomo izan dadin. Gaur egun, ordea, jostailuak errealitateari oso itsatsirik daude eta ez dute pentsatzeko balio, ez baitira eraldagarriak. Haurrak ezin du metamorfosirik egin egungo jostailuekin, ez diote horretarako aukerarik ematen.

Beraz, eraldaketa edo metamorfosi horiek haurri arreta mailak garatzen ahalbidetzen badiote, egungo jostailuekin hori eten egiten da.

Horrela bada, jostailu egokiak erabili behar dira, eta horretarako helduak haurren garapenaren etapako ezauzgarriak eta gaitasunak ezagutu behar ditu. Zeren horren arabera ezarriko bai-



Ikuspegi  
profesionaletik,  
garrantzitsua  
iruditzen zait  
haur  
bakoitzarekin  
dugun proiektua  
zehaztea



Gu oso  
dhituta gaude  
iniziatiba  
sortzailerik ez  
duten haurrak  
ikusten eskolan,  
edo agresibitate  
handia dutenak ere  
bai. Agresibitate  
hori erreakzio bat  
da. Zerena? Bere  
proiektuak entzun  
eta baloratu ez  
izanarena

tira hurrengo etapara pasatzeko oinarizko elementuak.

**Dena dela, helduaren esku-hartzeak nolakoa izan behar du? Hau da, haurrari tira egin behar al diogu ala bere kasa utzi?**

Nik ez dut uste tira behar denik. Are gehiago, eredu pedagogiko bat baino gehiago daudela uste dut, eta nik metafora bat erabiltzen dut eredu horiek azaltzeko.

Eredu bat haur bati bultzatzen dion traktorearena da. Bultza eta bultza egiten dio atzetik, eta haurra bultzada horri ahal duen moduan erantzuten saiatzen da.

Beste eredu bat azenarioarena da. Hezitzaileak azenarioa erakusten dio eta haurrak jarraitu egiten dio. Uste du berak nahi duena egiten duela, baina benetan hezitzaileak nahi duena egiten du, berak mugitzen du azenarioa nahi duen lekura.

Beste eredu bat arrantzalearena da, tira egiten du ateratzeko eta aurrera eramateko.

Eta beste eredu bat lorezainarena da, guk erabiltzen duguna. Maite dugun landare bati hazten laguntzeko lur egokiena bilatzen dugu, zein ongari behar duen ikusten dugu, zenbat ur behar duen, eguzkitan egon behar duen ala ez, kanpoan egon behar duen ala

ez... Ez litzaiguke bururatuko adarretatik edo hostoetatik tiratzea hazten laguntzeko. Horrenbestez, baldintzarik egokienak bilatzen ditugu hazi horrek ahalik eta fruiturik onenak eman ditzan.

**Bigarren hitzaldian esan zenuen momentu honetan hiperaktibitatea eta arreta defizita eskoletan eta haur klinika psikiatrikoetan gehien eztabaidatzen diren arazoak direla. Zerk eragiten du arazo horiek sortzea?**

Nik esango nuke azken urteotako ingurunearen antolaketak eta gizarteak sortu duela horrelako subjektua. Ez da atsedenetik sortu, baizik eta modu horretara estimulatu eta bultzatu dituen giro eta gizarte batetik.

Nahiz eta medikuek botikak errezeptatu arreta arazoetarako -zenbait kasutan beharrezkoak dira- benetan arreta arazoak dituzten haur hiperaktiboak haur horiek ulertzen ez ditugulako eta baldintza subjektibo eta objektibo egokiak eraikitzen laguntzen ez diegulako sortzen dira. Baldintza horiek edukiz gero, haurrak gai izango lirateke bere mailako gauzak ikasteko, bere interesekin eta denbora guztian arreta mantenduz. Ordea, egokiak ez diren baldintzak eraikitzen baditugu, hau da, izugarritzko zarata, egokiak ez diren erregistroak eta haurra etengabe asaldatuta mantentzen duten egoerak, ez





gaitu harritu behar hilabete bateko, hiru hilabeteko, sei hilabeteko, urtebete-ko, 2 urteko edo 6 urteko haur hiperaktibo, agresibo eta arreta defizita duen batekin topo egiteak.

### **Haur horiek hazten diren heinean, nola ikusten duzu beraien egoera?**

Arazoa da gehiegi exijitzen zaiela. Egoera horretan, neska-mutil batzuk, helduagoak direlako-edo, gai dira eskakizun horiei modu egokian erantzuteko. Beste batzuk ere erantzuteko gai izango dira, baina kostu psikiko eta personal hain handiarekin, non momentu batean krak egiteko eta puskatzeko arriskua duten. Modu oso behartuan erantzuten diete eskakizunei eta itxuragabetuta gelditzen dira. Agian intelektualki adimentsuak izango dira, baina emozionalki oso hauskorak dira, beti arrakasta lortu nahian ibili direnez, atsekabez betetako bizitza dutelako. Horrek porrot sentimendu handia sortzen du, eta ez da eskola porrota soilik, bizitzako porrota baizik. Ezen, gero ezingo baitute lanik egin eta sozialki deskalifikatuta geldituko baitira. Ez da, beraz, eskola mailako deskalifikazioa soilik.

Gazteen psikopatologia maila hain handia (estresa, eskizofrenia...) non hausnartu egin beharko genukeen zein den horisorrarazten duengizartea. Psikopatologia lehen ere bazegoen, baina beste ezaugarri eta portzentaia batzuk zituen, apalagoak. Momentu honetan elementu asaldatzaileen zabaltze handia dago.

**Zer egin dezakegu arazo horren**

### **aurrean hezitzaileok?**

Hainbeste eskola porrot baldin badaukagu, zer egin ez dakiten hainbeste gazte baldin badaude, zer egiten jardun garen aztertu eta planteatu behar dugu. Haurrak ongi eta zorientsu ikusiko bagenitu, ez genituzke planteatuko Bernard Acouturierren praktika psikomotrizo edo beste korronteen proposamenak, ez eta osasuneko eta hezkuntzako profesionalak egindako beste hainbat hausnarketa ere. Ordura arte egindakoa errepikatu besterik ez genuke egingo.

Aitzitik, ez da hori gertatzen. Haurrek bizi duten errealitate soziala eta hezkuntza errealitatea eraldatzeko beharretik sortzen da hausnarketa eta praktika psikomotrizo. Zeren, orain arte bezala jarraitzen badugu, arazo sozial garrantzitsuak sortzen dizkigun subjektu mota fabrikatzen jarraituko dugu.

Horrenbestez, ez dugu hausnartu behar eskola edukiak zein metodo pedagogikorekin ikasiko dituzten hobeto jakiteko, baizik eta haurra subjektu autonomo izateko baldintzak babesteko eta zaintzeko. Gure eginkizuna prebentzio lana egitea da. Gutxienez, aipatu arazoak ez dituzten haurrak hazten saiatu behar dugu •



Helduak  
haurrari hezten  
lagundu behar  
dio, eta  
horretarako,  
lehenbizi  
haurra ezagutu  
behar du



# Teknologia Berriak

## Teknologia berriak hezkuntzan

Dirudienez, Teknologia Berriak ikastetxeetan sartu egin behar dira. Ia inork ez dauka dudarik. Dena den, gutxienez zalantza sortu behar zaigulako ustean nago: Teknologia Berriak sartu behar al dira ikastetxeetan? Zergatik?

Batzuek diote ikastetxeetako lana sozializatzea dela. Beraz -jarraitzen dute-, Teknologia Berriak gizartean daudenez, ikastetxeek teknologien mundu horretan bizitzeko trebetasuna garatu behar dute. Nire ustez, arrazoiketa hori gezurrezkoa da. Denok dakigu indarkeria ere gizartean dagoela, baina hori ez da nahikoa gure ikasleak jotzeko edo babes teknikak erakusteko. Orduan, zergatik sartu behar dira Teknologia Berriak ikastetxeetan? Arrazoi sinpleago bategatik: Teknologia Berriek hezkuntza arloan aukera interesgarriak eskaintzen dizkigutelako, eskoletara



Iker LASKIBAR

Hezkuntzari aplikaturiko Teknologia Berrietan trebatua

iristeko eta sartzeko denbora luzea behar izan badute ere.

Duela hogeitau urte ordenagailuek izugarrizko itxaropena sortuzuten hezkuntza esparruan. Ordenagailuak irakasleen ordezkoak izango zirela sines-

**“Nire ustez, ikasleei irakats diezaiekegun alderdirik garrantzitsuena behar duten informazioa beren kabuz lortzea da. Eta horrekin batera, beste helburu garrantzitsuagoa bat lor dezakegu: hau da, ikaslearen autonomia sustatzea”**





ten zen. Helburu hori lortzeko, konduktistek geletan ezartzeko programa dexente hedatu zituzten, ordenagailua eskoletako elementu garrantzitsuena izango zelako ustean. Baina, denborak sinesmen hori ustela zela frogatu du.

Ondoren, fidagaiztasunaren garaia etorri zen. Ordenagailuak bazter batean utzi ziren, ia ezertarako ez zutela balio argudiatuz. Makina garestiak ziren eta irakasleei ez omen zieten batere laguntzen. Alabaina, azaldutako atseka-bea laster aldatu zen, Internet sortu zenean informazio digitalaren garrantzia benetan ulertu baitzen. Alde batetik, testuak formatu digitalean gorde ditzakegu. Zer da **informazio digitala**? Papera eta informazioa bereiztea. Jadanik ez dugu paperik behar informazioa alde batetik bestera mugitzeko. Lehen liburua bat bidaltzeko paketea postontzian sartu eta iritsi arte itxaron behar genuen; gaur egun, dokumentu bat edozein lekutara bidaltzeko ez dugu denbora gehiegi itxaron behar, segundo pare bat baizik. Posta elektronikoa-ren edo e-mailaren bidez ia edozein dokumentu bidal dezakegu hartzaileak behingoan jasoko duela jakinez. Informazio digitalaren iraultza ulertzeko, esan daiteke, adibidez, diskete batean 870 orriko testu bat gorde dezakegula eta CD batean ia 600.000 orriko testua.

Bestalde, **txat solasguneen** bidez ikasleek edozein herrialdeetako ikasleei idatz diezaiakete eta beraiengandik erantzuna jaso,aldi berean. Txat solasguneen erabilera oso interesgarria iruditzen zait ingelesa, frantsesa edo beste edozein hizkuntza irakurtzen eta idazten ikasteko. Baina, irakasleentzat ere erakargarria da: urruti dauden irakasleak gela birtual batean elkar daitezke elkarren esperientzietatik ikasteko eta materialak elkarri eskuratzeko.

Interneti esker, eskolako **web orrian** gurasoei bidalitako oharra, ikastetxearen Hezkuntza Proiektua, curriculum, gaien apunteak, etxerako lanak, ezagupenak sakontzeko bibliografia, ordutegiak eta abar jar ditzakegu.

**Hipertestua** ere oso interesgarria izan daiteke gai batzuk irakasteko.



Ikertzaileen artean eztabaida gogorra dago hipertestuari buruz, eta seguraski, laster ikusiko dira hezkuntza munduan aplikatzeko ondorio interesgarriak. Dena den, gai horietaz guztietaz hurrengo artikuluetan arituko gara

Ikastetxean **Internet** izanez gero, NASAk duen web orrian sar gaitzezke eta ilargiaren argazkiak jaso, edota ikasleei edozein gairi buruzko informazioa lor dezaten eskatu.

**Hedabideek**, orokorrean, eta **ordenagailuak**, konkretuki, informazioaren atea irekitzen dizkigute. Nahi dugun gaiari buruzko informazioa aurki dezakegu Internet sarean. Gure arazo bakarra informazio hori aurkitzea da.

Nire ustez, gela bakoitzean sarean konektatutako ordenagailu bat eduki beharko litzateke. Horrela, gaur egungo hezkuntzaren ikuskera aldatu egin beharko genuke. Jende askok dio ordenagailuaren eginkizuna ikasleak aktibitate mekanikoetan trebatzea dela. Hezkuntzari aplikaturik sortu diren ia programa informatiko guztiak hori egingen dutela dirudi. Ikuskera hori konduktisten antzekoa da. Konduktismoa oso interesgarria iruditzen zait, baina era orokorrean hezkuntzan erabiltzeko, ez hainbeste. Nire ustez, ikasleei irakats diezaiakegun alderdirik garrantzitsuena behar duten informazioa beren kabuz lortzea da. Eta horrekin batera, beste helburu garrantzitsuago bat lor dezakegu: hau da, ikaslearen autonomia sustatzea.

Hezkuntzari aplikaturiko Teknologia Berrietan sartuta gaudenok ez dakigu nola aldatuko diren gauzak, ezta norantz aldatuko diren ere. Nolanahiereziurgau-de mundu hau mugitzen ari dela. Eta nahitaez Teknologia Berriak eta hezkuntza nonbait topatuko direla dirudi.

**“Zergatik sartu behar dira Teknologia Berriek ikastetxeetan? Teknologia Berriak hezkuntza arloan aukera interesgarriak eskaintzen dizkigutelako”**

**Hurrengo aldizkarian telebista izango da hizpide**

## Drogak larrugorrian

Askagintza erakundeak argitaratu duen liburuaren izenburua da *Drogak larrugorrian*. Koloretako argazkiekin eta testu arin eta irakurterrazekin osatutako liburu honek drogen eta droga menpekotasunaren inguruko informazioa biltzen du. Nolanahi ere, bilketa lanaren helburua ez da apalean gelditzea, ahalik eta jende gehienarengana iristea baizik. Droga menpekotasunaren fenomenoari aurre egiteko bitarteko bat izan nahi du.

*Drogak larrugorrian* liburuak droga menpekotasunen prebentzioran lanean dihardutenentzat lan tresna zehatz bat izatea du xede. Hori horrela izanik, drogen inguruko informazio argia eta objektiboa erakusten du. Liburu hainbat ataletan banaturik dago. Hasierako sarreraren ondoren, testuinguruari eta pertsonen buruzko informazioa dator, eta jarraian drogen gaia objektibotasunez eta zentzuz lantzeko materiala aurkezten du. Oinarrizko hainbat kontzeptu argitzen ditu segidan: drogak zer diren, droga kontsumitzaile motak, tolerantzia eta menpekotasuna. Liburuaren zatirik mardulena droga motei dagokiena da. Hasieran sailkapen orokor bat dago eta hor hiru droga mota bereizten dira: naturalak (gordinak eta findurikoak), erdi-sintetikoak eta sintetikoak. Jarraian hainbat drogaren bananbanakako azterketa biltzen da. Aztertutako substantziak hauek dira: alkohola, anfetamina, Ayahuasca, azidoa,



barbiturikoak, belar estimulatzaileak, cracka, disolbenteak, DMT, estasia, GHB, heroina, kannabisa, ketamina, kirolarekin erlazio naturiko drogak, kokaina, lasaigarriak, metadona, metilamfetamina, onddo haluzinogenoak, PCP, peyotea, poppersak, rohipnol eta tabakoa.

Substantzia horien alderdi eta ezaugarri guztiak hartu dituzte kontuan. Azken finean, drogak plazer iturri eta sendatzeko gaitasuna izateaz gain, osasun fisikoa eta psikikoa kaltetzeko gai direlako, eta baita menpekotasuna eta heriotza sortzeko gai ere. Bakoitza zer den, nolakoa den, nola kontsumitzen den, zein efektu dituen, zer ondorio dituen, legeak zer dioen, zer erabilera duen eta abar esplikatzen da. Tartean hainbat datu historiko ere aurki daitezke: sorginen ukenduak, Delfos Orakuluko erritu-letako gasak eta lurrinak, Hego Ameriketako kokaren jainkoak, amaniten historia, peyotearen historia, tabako-arena...

Liburuaren azken orrietan Interneteko hainbat helbideren erreferentzia ematen da.

### Liburu egiteko xedeak

Liburu honen egilea Askagintza herri erakunde da. Erakunde honen jatorria 1970eko hamarkadan Euskal Herrian sortu zen droga menpekotasun fenomenoari aurre egiteko sortutako hainbat herri erakundetan bilatu behar da. Orduko talde asko elkartu

eta 1988an Etxarri-Aranatzen erakunde bilakatu zen.

Harrezkero, gizarteko hainbat sektorerekin elkarlanean dihardu: gurasoekin, gazteekin, hezitzaileekin, psikologoekin, pedagogoekin, prebentzio teknikariek eta abarrek.

Horiek guztiek ikusten zuten liburu hau egiteko beharra eta hala eman izan dute aditzera auzo, herri, ikastetxe eta gaztetxeetan egindako topaketetan, tailerretan, mahai inguruetan, bileretan, asanbladetan eta abar.

Informazioa biltzeaz gain, iturriak kontrastatu dituzte, betiere baieztapenak erlatibizatzeko eta ondorioak objektibatzeko asmoz. Beste zientzietan eta esperientzietan lanean diharduten profesionalekin ere kontrastatu dute informazioa, hala nola, farmazetikoekin, medikuekin, prebentzio teknikariek, abokatuekin, psikiatrekin, gizarte langileekin eta hezitzaileekin.

### Prenbentzio lana ezinbestekoa da

Liburuaren xedea informazioa ematea bada, informazioa prebentzio tresna garrantzitsua delako da. Eta prebentzioa da droga menpekotasunari aurre egiteko modurik egokiena Askagintzako kideen ustetan. Horrela, ildo hori jorratu dute urte haueetan guztietan.

Drogak beti egon dira, orain ere badaude eta etorkizunean ere egongo dira. Jakin badakigu pertsona bakoitzak egiten duen substantzia horien erabilera ezberdina dela, drogak hartzen direnean lortzen diren ondorioak ezberdinak izan baitaitezke: sendatzea, plazera lortzea, ihes egitea, eguneroko gauzak ahaztea, heriotza... Substantziak berez ez dira arazo, ematen zaien erabilpena baizik.

Politika debekatzailak eta kontrol polizialak porrot egin dute. Beraz, beste bide bat bilatu behar da. Askagintzak proposatzen duena da drogekin dugun harremana modu ardurasuagoan eta demokratikoagoan erre-



Amanita Muscaria lehorrak

gulatzea, bai ekoizpena, bai salmenta eta baita kontsumoa ere. Haien ustetan, erabiltzen diren diskurtso hutsal eta neoliberalak kontsumoaren eskubide indibidualen eta kolektiboaren osasun eta askatasun eskubideen aurretik jartzen dira. Droga ilegaleen eskaintzaren eta banaketaren atzetik dauden interes ekonomikoak, politikoak eta polizialak ustelkeria sortzeko besterik ez direla diote, eta askotan droga kontsumoak berak baino ondorio kaltegarriagoak sortzen dituztela. Hori guztia aintzat harturik, Askagintzak droga menpekotasunaren fenomenoari erantzun zehatzak eman nahi dizkio, betiere ikuspuntu globaletik.

Zeregin horretan *Droga larrugorrian* liburua bitarteko bat izanen da. Bizkitartean, badakite ez dela bukatutako lan bat. Droga menpekotasun fenomenoaren errealitate aldakorrek hori ezinezkoa egiten dute. Horren jakitun izanik, ez dute liburu itxia egin, guztiz kontrakoa baizik. Beraien filosofia eta ideologia parte-hartzean oinarritzen da eta planteatzen zaizkien iritzi, aldaketa, kritika, iradokizun, ekarpen, hausnarketa, berrikuntza eta abarri irekita daude. Horretarako, beraiengana jotzea da onena, eta liburua eskuratzeko ere bai •



KOKAINA edo KLOORHIDRATOA (ohiko kokaina)



Askagintza Gipuzkoa  
Tel.: 943 33 60 80  
Faxa: 943 33 63 27  
askagintza@euskalnet.net





## Euskaraz jolasteko material bilduma aberastuz doa

Urtxintxa Eskolaren *Euskal jolasen bilduma* CD-ROMa da produktu berriena

Ez dago euskaraz ez jolasteko aitzakiarik. Euskarazko abestiak eta jolasak ez baldin badakizkigu, nahi ez dugulako da, ez materialik ez dagoelako. Izan ere, azken urteotan euskal jolasen inguruan produktu ugari kaleratu dira: zintak, CDak, bideoak. Eta azkena Urtxintxa Eskolaren *Euskal jolasen bilduma* CD-ROMa da. Handik eta hemendik, batzuen eta besten lanarekin euskal jolasen inguruko bilduma osatuz doa.

Haurrak, jolasak eta euskara. Bat baino gehiago izan dira hiru kontzeptu horien inguruko kezka agertu izan dutenak. Eta guztiak ondorio berera iritsi izan dira: Euskal Herriko hurrek erdaraz jolasten zutela, erdarazko abestiak kantatzen zituztela eta esamoldeak ere ezzirela euskal jatorrikoak. Gauzak horrela, horri buelta emateko asmoz hainbat ekimen eraman dira aurrera.

Lehen jasoketa mardula Etniker taldeak egin zuen eta *Juegos infantiles en Vasconia* liburua kaleratu zuen 1993an.


Era berean, Imanol Urbietaren kanta ugari erabili izan dira jolasetarako, nahiz eta espresuki horretarako asmatuak ez izan. Eta dudarik gabe, hastan baliotsua izan da oso.

Dena den, jolasen kasuan, liburu formatutik zinta eta CDrako jauzia **hik hasik** eman zuen *Haur-jolasen abestiak I eta II* lanekin. Lehen zinta eta CDak 22 abesti ditu eta bigarrenak 23. Kanta horiek hainbat jolasetan erabiltzen direnak dira: soka-saltoan, gomatatan, txalotako jolasetan, korroan, ezkutaketan, aho-korapiloetan, dantza jokoetan, imitaziojokoetan, zotz egitekoetan, hatz jokoetan, aulki jokoetan,

txingotakoetan, hizkuntza jokoetan, korrika egiteko jolasetan, lerroan aritzeoetan eta abar. Doinuz eta bertsoz jantzirik, abesti zaharrak eta berriak nahasten dira.

Lan bi horien osagarri da *Zatoz jolastera!* bideoa. *Haur-jolasen abestiak I eta II* zinta eta CDetatik aukeraketa bat egin ostean, bideoan 23 abesti biltzen dira. Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazo taldea, haurrak eta Euskal Herriko hainbat pertsonaia ezagun protagonista dituen istorio bat kontatzen da, denak jolasean agertzen direlarik. Helburua garbia da beti: haurrak euskaraz jolas daitezten lortzea.





Ez dira, ordea, xede hori duten material bakarrak. Hainbat herritan ere sortu dira iniziatibak. Bata Debako Udalarena dugu. 2000. urtean Debako Udaleko Euskara Batzordeak eta Zuhazta Euskara Elkarteak kantu bildumatxo bat kaleratu zuten. Seme-alabekin euskaraz jolasteko baliabideak eskaini nahian, gurasoentzat haur jolasen kantuen ikastaroa antolatu zuten, eta ondoren, han erabilitako materialarekin bildumatxoa osatu.

Ikastetxeetatik sortutako iniziatibak ere baditugu; hala nola, Markina-Xemeingo Lea-Artibai ikastetxe publikokoa. Batez ere, soka-saltoan aritzeko hainbat modu eta aldaera jasotzen dira horiek egin duten lanean.

### Ikusi eta ikasi bai, baina jolastu ere bai

Material hori guztia baliagarria eta egokia da oso lortu nahi den helbururako. Baina zerbait gehiagoren falta sumatzen zuten hartzaileek, bereziki irakasle, hezitzaile eta gurasoek. Abestiak ikasteko modua bazuten, baina jolasak ikastea zailagoa zen. Horixe zen behar zutena: jolasak ikastea. Eta horretarako, zer egokiagorik beraiek jolastea baino?

Horrela, **hik hasi** ikastetxeetan ikastaroak eskaintzen hasi zen. Urtxintxa Eskolak ere gauza bera egin zuen, ikastaroak eman bai irakasleei eta bai astialdiko hezitzaileei. Jakina da aisialdiko taldeetan aspaldiko ohitura dela begiraleei jolasak irakastea.

Era berean, Sortzen-Ikasbatuaz erakundeak *Euskaraz Mintza* proiektua jarri zuen martxan. Jolasen bitartez kaleko euskara informala erabileraren bultzatzea da egitasmo horren helbu-

ria. Gauzak horrela, ikasleei, irakasleei eta gurasoei ikastaroak eskaini zaizkie, eta Urtxintxa Eskolako begiraleak izan dira ardura hori eduki dutenak.

### Euskal Jolasen bilduma CD-ROM berria

Aipatutako ekimen guztiez gain, bada osagarri den produktu berri bat: Urtxintxa Eskolak kaleratu duen *Euskal Jolasen bilduma* CD-ROMa. 50 jolas biltzen ditu, horietatik 28k abestia dute larrik. Jolasen aurkeraketa egiterakoan erabilpena hartu dute kriterio nagusitzat, hots, erabilgarriak diren jolasei eman diete lehentasuna. Jaime Altunalararen koordinatzaileak hori azpimarratu du: *“Agian sinpleak irudituko zaizkio norbaiti, baina guk erabilgarritasunari eman diogu lehentasuna. Abesti zaharrak, ez hain zaharrak eta berriak daude, eta gehienak herrikoiak dira, guk asmatutakorik ez dago”*.

CD-ROMak jolasen zerrenda erakusteaz gain, beste hainbat aukera ematen ditu. Hasteko, jolas bakoitza ze jolas mota den agertzen da: animazioa, eskuetakoa, korrikakoa, harrapaketa, txingoka, trebetasun jolasa, soka-saltokoa, korrokoa, gomatakota, ezkutaketa, lerrokakoa, baloiarekin jolastekoa eta zozketatzekoa. Bakoitza zein adinetik aurrerako haurrentzako modukoa den zehazten da, zenbat partaide behar diren gutxienez, zein material behar den eta zein lekutan jolas daitekeen. Hori guztia pantaila nagusian agertzen da, eta horrez gain, jolas bakoitza nola gauzatzen den eta zein arau eta konsigna dituen ere esplikatzeko da. Jolas bakoitzak dituen hainbat aldaeraren berri ere ematen da. Era berean, jolasaren garapenean erabiltzen diren esamoldeak azpimarratzen dira. Informazio sozio-kulturala ere biltzen da; hala nola, jolasaren historia, jatorria eta abar. Azkenik, bakoitzak zein heziketa gaitasun lantzeko balio duen aipatzen da: jolasaren bitartez garatzen diren jolas jardueren mota, jokaera kognitiboa, trebetasun funtzionala eta alderdi sozialak.



Azalpen horiek guztiak ezagutu ondoren, jolasten hastea falta da. Baina aurretik jolasa bisualizatzeko aukera ematen du CD-ROMak. Jolas bakoitzaren irudiak agertzen dira, hots, inurri talde bat ikusten da jolasean. Hurrengo urratsa ordenagailua utzi eta gu geu jolasten hastea da.

Aitzitik, eserita jarraitu nahi duenak Tortoloxen jolasean aritzeko aukera du. Ezen, CD-ROM honetan bertan tortoloxen jolas interaktiboa baitago. Ordenagailuko teklatua erabiliz mugitzen dira eskua eta tortoloxak, eta hiru zailtasun maila ditu. Jolas tradizionala eta Teknologia Berriek bat egin duten gairira iritsi gara. Zer, ausartzen al zara?

### Uzta bilketa, orain eta gero

Talde guztiak pozik ageri dira orain arte egindako lanek izan duten erantzunarekin. Orain dela zenbait urte ez zegoen ezer, ez zegoen materialik. Momentu honetan, ordea, ezin esan gauza bera. Materiala badago, kezka ere bai, eta euskal jolasen inguruko mugimendua nabari da. Epe motzera emaitzak ikusi dira, eta epe luzera gehiago ikusiko dira. Ohiturak aldatzeak denbora eskatzen du, baina bide horretan sartuak gaude. Eutsi goiari eta jolastu euskaraz! •



# Jolas-ikastaroak zuen neurrira

txalotako jolasak, gomatakoak, soka-saltokoak, korroan aritzeak, zotzetakoak, behatz jolasak, hizkuntza jolasak, zaburako kantak, erritmoak lantzekoak, imitazio jolasak, dantza abestiak, kantinerita antzekoak, txingotan, ezkutaketan, gailera jolasa...



# Euskaraz jolas -

ikastaroak

hh  
hik hasi



Bide eginean jarraitzen  
dugu zuen ekarpenekin  
eta parte-hartze  
handiagorekin aberastu  
nahi dugularik.

Hik Hasi proiektua irekia  
den heinean, interesa  
duen edonoren parte-  
hartzea gustu handiz  
hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa  
euskal hezkuntzaren  
aldeko ekimen honetan.



# Berriak urtarrila

## EAEko Hezkuntza Ikuskaritzak etapa berri bat hasi du



Nekane Agirre Hezkuntza sailburuordea, Anjeles Iztueta sailburua eta Juan Mari Aztiria Ikuskari nagusia Ikuskaritzaren aldaketen berri eman zuten prentsaurrekoan.

Hezkuntzako Ikuskaritza hezkuntza sistema osatzen duten kideen kontrolaz, ebaluazioaz eta aholkularitza arduratzen da eta Hezkuntza Sailak berritu eta hobetu egin du. Antolaketa aldatzearekin batera, Ikuskaritzaren funtzioari eta helburuei atxikitzen zaien kontrol zentzua kentzea eta aholkularitza zeregina indartzea du xede berrikuntzak, eta horretarako hiru dekretu berri onartu dira.

Gaur egun EAEko irakaskuntza ez unibertsitarioko sare publikoko zein pribatuko 1.036 ikastetxe, 325.000 ikasle eta 29.000 irakasle biltzen dituen jarduera esparrua dute 88 ikuskarik. Batez beste, ikuskari bakoitzak 13 ikastetxe, 4.000 ikasle eta 370 irakasle ditu bere gain. Zeregin horretan EAEko Hezkuntza Ikuskaritzaren Memoriaren (1999) arabera, ikasturtean zehar guztira

30.000 ekintza burutu zituzten ikuskariek, 5.000 txosten prestatu eta 7.000 ikastetxe bisitatu.

Ekintza horietan hainbat zeregin dituzte. Hasteko, pedagogiaren eta antolamenduaren ikuspegitik, ikastetxe publiko nahiz pribatuen funtzionamendua kontrolatu eta gainbegiratzea. Horrez gain, irakaskuntza jarduna, ikastetxeen funtzionamendua eta hezkuntza erreformako eta pedagogia berrikuntzako proiektuak hobetzen laguntzea ere bai. Hezkuntza sistemaren ebaluazioan ere parte hartzen dute, batez ere ikastetxeei, zuzendaritza zereginari eta irakaskuntza zereginari dagokienez. Modu berean, ikastetxeetan hezkuntza sistemarekin zerikusia duten indarreko legeak, araudiak eta gainerako xedepanak betetzen direla zaintzen dute. Hezkuntza elkarteak osatzen duten hainbat arlo aholkatu, orientatu eta informatzen dituzte beren eskubideen eta betebeharraren jakitun izan daitezkeen. Eta azkenik, Hezkuntza Administrazioak sustatutako koedo baimendutako hezkuntzaren inguruko programen eta jardueren berri ematen dute.

Funtzio horiek guztiak 1988an indarrean jarri zen dekretuan zehazten dira, eta horren arabera antolatu zen Hezkuntza Ikuskaritza. Geroztik, ordea, LOGSE Legea (1990), Euskal Eskola Publikoaren Legea (1993) eta Ikastetxeen Partaidetza, Ebaluazio eta Gobernuari buruzko Lege Organikoa (1995) ezarri dira indarrean, eta 1988ko dekretua zaharkitua gelditu da. Hori dela-eta egokitu du orain Hezkuntza Sailak.

Orain arte bezala, Hezkuntza Ikuskarieren Kidegoaren ardura izango da ikastetxeak, zerbitzuak, programak eta jarduerak ikuskatzea. Ikaskuntza prozesuan hezkuntza sistemaren hobekuntzan eta irakaskuntzaren kalitatean parte hartzen duten guztiek legeak, eskubideen bermea eta betebeharrak betetzen dituztela ziurtatuko du.

Hori gauzatzeko Kidegoaren antolaketan aldaketak egin dira Eusko Jaurlaritzak onartu dituen hiru dekreturen bitartez. Dekretuak hizkuntza eskakizunei, ikuskaritza antolaketari eta ikuskaritzako lanpostuen zerrendari buruzkoak dira.

Lehenengoari dagokionez, ikuskariei hizkuntz eskakizunak betetzea eskatuko zaie. Egun %66 dira 2. hizkuntz eskakizuna dutenak. Gainontzekoei derrigortasun epe bat ezarriko zaie (bost eta hamar urte artekoa) eta 45 urtetik gorakoentzat borondatezko salbuespen erregimen berezia ezarriko da.

Bigarren dekretua ikuskaritzaren antolaketari buruzkoa da. 13 barruti izatetik zortzi izatera pasa dira, eta barruti bakoitzean sei ikuskari baziren, orain 10 dira, batez beste. Guztira, beraz, zortzi Ikuskaritza Zona egongo dira; bat Araban, hiru Gipuzkoan eta lau Bizkaian. Ikuskaritza Zona horiek Lurralde Unitatetan biltzen dira, lurralde historiko bakoitzean bana izango delarik. Eta azkenik, horiek Ikuskaritza Nagusian batuko dira.

Hirugarren dekretuak lurralde unitateen araberako lanpostuak ezartzen ditu, bakoitzerako hizkuntz eskakizuna adierazita. Gainera, lanpostu bako-

tzaren osagarri berezia eguneratu du, irakaskuntza jardunaren barruan ikuskariaren lanpostua maila gorenean dagoela kontuan izanik. Horrela, ikuskari lanpostua bete nahi duenak zenbait ezaugarri bete beharko ditu: ikastetxeetan zuzendaritza postua bete izana kontuan hartuko da, eta baita lan honetan jarduteko beharrezko ezagutza pedagogikoa, administratiboa eta hezkuntza legediari buruzkoa ere.

Hezkuntza Saileko arduradunek garbi adierazi dute Ikuskaritza hezkuntza sistemaren zati bat baino ez dela, baina oso zati garrantzitsua. Hezkuntza Sailarentzat ikastetxeetan gertatzen denaren berri jakiteko *begi* bat da, zuzeneko tresna. Funtsezko tresna dela deritzote hezkuntza egoera ezagutu, hobetu eta berritzeko. Horrekin batera, orain arteko kontrol zentzua gainditu nahian, ikuskaritzak duen aholkulari lana azpimarratu dute. Hemendik aurrera, ikuskaritzaren ikuspegi integral eta osoago-



arekin ikastetxeekiko zuzeneko aholkularitza indartuko dela adierazi dute. Hori modu egokian gauza dadin ikastetxeen autonomia indartu behar dela eta dinamika aktiboak bultzatu behar direla gaineratu dute.

## Sarean Elkartearen XI. Topaketetan garraio zerbitzua- ren berrantolaketa eta ikastetxerako informatika ardu- raduna eskatu dira

Sarean Elkartearen XI. Topaketetan 140 pertsonatik gora elkartu ziren iazko azaroaren amaieran. Ikastetxe publikoetako zuzendaritza taldeko kideek, Berritzeguneetako ordezkariak eta beste hainbat erakundetako kideek bi gai izan zituzten aztergai bereziki.

Alde batetik, eskola garraio zerbitzuaren inguruko planteamenduak eztabaidatu ziren, eta bi eskaera luzatu dituzte: lehendabizi, ikastetxe bakoitzak bere garraio zerbitzua antolatzeko autonomia izatea; eta bigarrenik, garraio zerbitzua erabiltzeko eskubidea arautzen duen agindua beraztertzea.

Aztergai izan zuten bigarren gaia informatika arloko arduradunaren figurarena izan zen. Ikastetxean infor-



matikaren ardura izango duen kargua lanpostuen zerrendan agertzea eskatu dute. Arduradun horren zeregin nagusiak ikastetxeko tresneria ondo egoteaz arduratzea, irakasleei laguntza ematea eta Berritzeguneetako mintegietan parte hartzea izango lirarteke.

Gai horri loturik, irakasleek informatika arloan izan behar duten prestakuntzaren inguruko kezka ere agertu

zen topaketetan. Ildo horretan, klausuro osoak formazioa jaso behar duela azpimarratu dute, bai ikastetxeko IKT-ko arduradunaren eskutik eta bai ikastaro eta aplikazio ikasketen bitartez. Borondatez egiten den lanetik irakasle guztien alfabetizazio digitalerako urratsa eman beharra dagoela berretsi dute. Horretarako, Hezkuntza Sailak arlo horretarako Irale moduko bat antolatzea egoki ikusten dute.


Antolatzaileek beste balorazio bat ere egin dute, partaide berrien ingurukoa. Izan ere, partaidetza handia izateaz gain, jende berri asko hurbildu da. Kontuan hartu behar da joan den ikasturte amaieran ikastetxeetako zuzendaritza taldeen izendapen prozesu berria egin zela, eta ondorioz zeregin horretan jende berria dabilela.



# Berriak

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, EIZIEK eta Ibaizabal argitaletxeak sustariko Literatura Unibertsala proiektuan edo bilduman beste bost liburu berri kaleratu dira, 90. zenbakitik 94.era bitartekoak: Giovannino Guareschi-ren *On Camillo*, Ramon Maria del Valle-Inclán-en *Buhamen-argiak*, Jan Neruda-ren *Mana Stranako ipuinak*, Mikhail Afanasievitx Bulgakov-en *Txakur-bihotza* eta Eugène Ionesco-ren *Abeslari burusoila*. Guztiak itzultzaile on eta treba-

## Literatura unibertsala



tuek euskaratuak dira, hurrenez hurren Koldo Bigurik, Anastasio Esnaola, Fernando Reyk, Jose Moralesek eta Jon Muñozek.

Bost ale hauek argitaratu ondoren, sei baino ez dira falta Literatura Unibertsala bildumarako aurreikusitako 100 aleetara iristeko.

Bildumaren helburuak honakoak dira: literaturaren historian punta-puntako egileek idatzitako lanik adierazgarrienak gure itzultzaile onenek euskarara itzuliak ematea; literatura unibertsaleko liburuetan euskarak duen urritasuna kontuan harturik, hutsune garrantzitsu hori betetzea; eta, azkenik, euskal irakurleak beste hizkuntza batzuetan jorrotutako lan-baraztetan barrena paseatzeko modua izatea, hitzez jositako u-

rutiko historia arrotzak ezagun bihurtu, bereganatu eta erraz ulertuz.

Orain arte egindako itzulpenen kalitatea begien bistan gelditu da. Hala erakutsi dute bilduma honetako zenbait liburuk Euskadi sariaren barruan euskarazko literatura itzulpen onenari dagokion saria irabazi eta gero. Lau itzulpen-lan izan dira sari hori jaso dutenak: Mikhail Jurievitx Lermontov-en *Gure garaiko heroia*, Jose Moralesek itzulia (1997ko saria); Pierre Choderlos de Laclos-en *Harreman arrisku-tsuak*, Jon Muñozek itzulia (1998ko saria); Jorge Luis Borges-en *Ipuin hautatuak*, Juan Garziak itzulia (1999ko saria); eta Guy de Maupassant-en *Fantasiako ipuinak*, Josu Zabaletak itzulia (2001eko saria).

## Johanes, Bargotako aztia web gunea



Bianako Erentzun ikastolako Ful-txo Crespo eta Mikel Fernandez irakasleek ekimenez eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren

Euskara Zerbitzuaren laguntzaz, *Johanes, Bargotako aztia* web gunea sortu berri da. [www.pnte.cfnavarra.es/bargotakoaztia/index.html](http://www.pnte.cfnavarra.es/bargotakoaztia/index.html) helbidean dago ikusgai aipatu gunea. Johanes, Bargotako aztia pertsonaia historiko-folkloriko bat da, eta horren historia, bizitza eta bere inguruko elezaharrak biltzen ditu guneak.

Aurretik bideo formatuan zegoena, orain sarean jarri dute. Egileen iritziz, gure jakintza herriari eskaintzeko eta jakintza hori zabaltzeko sarea ezinbestekoa da.

Web gunearen edukiari dagokio-

nez, gunean sartzearekin batera, hainbat aukerekin egin daiteke topo. Bate-tik, Johanes pertsonaiari buruzko informazio zabala dago. Bestetik, Bargotako aztia buruzko elezaharrak biltzen dira, guztira 20, zazpi azpisailetan sailkataturik. Azkenik, web guneako hirugarren aukeran proposamen pedagogikoak egiten dira. Guneari etekin pedagogikoa atera ahal izateko zenbait aholku, proposamen eta jardura zehatz iradokitzen dira.

Informazioaren funtzionaltasuna eta hizkuntzaren kalitate ona biltzen ditu denon eskura dagoen gune honek.

# Argitalpenak




**Izarretara bidean zihon txakurra**  
Henning Mankell  
Erein

Gazteentzat idatzitako eleberri honek Gazte Literaturako liburu onenari eman ohi zaion saria jaso zuen 1990ean Suedian, eta Gazte Literatura onenaren saria 1993an Alemanian. Mutiko gazte baten bakardadea kontatzen du eleberri honek. Bakardade horretan izarretara zihon txakurra ikusten du leihotik, eta bera ere egunen batean hara joango erabakitzen du.




**Ardi Beltza**  
Pasqual Alapont  
Giltza

*Periskopia* saileko liburu honek 2001eko Edebé Saria jaso du. Hermogenes mutil gaztearen bizitza du zutabe. Gurasoen nahiaren kontra Arkeologia ikasketak egiten hasten da. Etxekoek ez diote laguntzarik ematen eta ikasketak ordaintzeko haur bat zaintzen hasten da. Quim haurrak eta bere amak paper garrantzitsua jokatuko dute bere bizitzan.



**Mirari hegalaria**  
Iñaki Zubeldia  
Ibaizabal

*Gaztaro* bildumako liburu hau 10 urtetik aurrerako haurrei zuzendua dago. Adin horretako Mirari neskatila da protagonista. Neska txikia dela-eta, ikaskideek iseka egiten diote. Horrek sortzen dion barruko mina gainditzeko hegaldi harrigarri bat egiten du. Bere ausardia erakustez gain, heroi handizat hartzen dute. Aldaketa horren zio den hegaldiaren berri jakiteko liburua irakurtzea da onena.



**Kapak eta letaginak**  
Alain Ayroles eta Jean-Luc Masbou  
Jean François Sauré

Komiki liburu hau Kapak eta letaginak saileko lehen kapitulua da, *Janizariaren sekretura* izenekoa. Bi ezpatari, gudukari eta sasi-poeta fin dira Urrezko mendean kokatutako istorio honetako protagonista. Kartzelaz kartzela eta galerarik galera, munduaren azken muturreraino eramaten dituen abentura batean murgiltzen dira.



**Ni bai ni! Manolito gafotas**  
Elvira Lindo  
Alfaguara-Zubia

Manolito Laubegi Carabanchel herriko mutikoa da. Munduari bere auzotik begiratzen dio. Ikusten duen guztia kontatzeko, helduengandik, filmetatik eta telebistatik harrapatzen dituen hitzak erabiltzen ditu. Uda heldu eta bere lagun guztiak oporretara joan dira. Bera, ordea, auzoan gelditu da. Ez hartatik abenturarik gabe. Ez da aspertzen, eta irakurleak ere ez, bere istorioekin.



**Mintzo naiz isilik...**  
Juan Kruz Igerabide  
Elkarlanean

Igarkizun liburu honetan 150 igarkizun inguru bildu ditu egileak; ez zail-zailak, eta ezta erraz-errazak ere. Igarkizunak gaika sailkatu daude: janariak, tresnak, animaliak, zerukoak, jantziak... Lorena Martinez Oronozen marrazkiek bizitasuna eta kolorea ematen diote, egilearen erritmoa eta ukitu poetikoarekin batera.

## Kalitatearen Legea eztabaidatzeko jardunaldia antolatu du Bilguneak

Urtarrilaren 26an Donostiako EHU-ko Pedagogia Fakultatean irakaskuntzako hainbat ordezkari eta partaide bilduko dira Bilguneak antolatutako jardunaldian. Aste Santuen inguruan indarrean jarriko den Kalitatearen Legea izango da aztergai. Legearen inguruko eztabaida eta gogoeta egiteaz gain, gure hezkuntza sistema propioa eratzearen bidean gogoeta eta alternatiba bilaketa bultzatu nahi ditu Bilguneak.

Donostiako Pedagogia Fakultatean izango da jardunaldia eta bost hizlarik hartuko dute parte. Eusko Jaurlaritzako, Nafarroako Gobernuako eta Hez-

kunde Ministeritzako ordezkari bana, eta bi aditu, bata Euskal Herrikoa eta bestea Estatu Espainiarrekoa. Horiekin batera, sindikatuetakoa, guraso elkarteetako eta irakaskuntzako hainbat sektoretako ordezkariak bilduko dira.

Hausnaketa jardun honen ondoren, ateratzen diren ondorioak eta proposamenak argitaratu eta ikastetxe guztietara banatuko dira. Helburua Aste Santu inguruan indarrean jarriko den Kalitatearen Legearen inguruko sentsibilizazioa sortzea eta hausnarketa bideratzea da. Horren ondoren Bilguneak jardunaldi irekiago bat egitea aurreikusten du.

## Sentsibilizazio ikastaroak Bergarako UNEDeko Psikomotrizitate Eskolan

Bergarako UNEDeko Psikomotrizitate Eskolak heziketa praktika psikomotrizetan formatzeko bi urteko ikastaroa (2003ko urtarrila-2004ko abendua) baino lehen haurren osasun eta heziketa lanean ari direnei zuzendutako "sentsibilizazio" hiru ikastaro antolatu ditu honako helburuekin:

- Berraurkiketa eta ongiegote egoera sentsiomotrizetan parte hartzea taldeka eta mugimenduan oinarriturik.
- Lasaidura bizkorgarriak eta luza-penak bizi eta barneratzea.
- Bestearekin elkarturik egokitze bizkorgarria bilatzea denbora eta espazioan kokaturik.

- Norbere gorputzaren irudira iristea.
- Plano horizontal eta bertikalen kokagunearen aldarriaz jabetzea.

Ikastaroen zuzendariak Miguel Angel Dominguez Sevillano, Jon Perez de Arriuzea eta Alvaro Beñaran izango dira. Bi urteko ikastaroko irakasleak eta B Acouturier Hezitzaile Taldeko kideak dira hirurak.

Ikastaroen egunak eta tokiak hauek dira:

- **Martxoaren 1, 2 eta 3an** Bilboko Pio Baroja ikastetxean.

- **Martxoaren 24, 25 eta 26an** Trintxerpeko (Pasaia) Karmengo Ama ikastetxean

- **Irailaren 20, 21 eta 22an** Gasteizko Luis Elejalde ikastetxean.

Orduetgia guztietan berdina izango da: ostiletan 18:00-22:00, larunbatetan 9:00-13:00 eta 14:00-19:30 eta igandetan 9:00-15:30.

Ikasle kopurua mugatua izango da eta matrícula epea ikastaro bakoitza hasi baino 8 egun lehenago bukatuko da.



### Informazio gehiagorako:

UNED, Psikomotrizitate Eskola  
69 P. K.

20570 Bergara

Tel.: 943 76 90 33

Faxa: 943 76 27 21

E-posta: [info@bergara.uned.es](mailto:info@bergara.uned.es)

Bulego orduak: asteartetik ostiralera 10:30-13:00 eta 17:00-20:00.





## Emakume abertzaleek emakumeek irakas-kuntzan duten egoera aztertu dute

Emakume Abertzaleon Topaketa Feministak burutu ziren abenduaren 15, 16 eta 17an Leitzan. Bildutako 250 emakume inguruk Euskal Herriko gizarteko hainbat arlotan emakumeek duten egoera aztertu zuten. Aztergai izan ziren arloak komunikabideak, sozio-ekonomia, kultura eta irakaskuntza izan ziren.

Hezkuntzari dagokionez, egungo hezkuntza sistema arrotza eta patriarkala dela aipatu zen. Topaketetan aztergai izan zen txostenean esaten zen Euskal Herrian Espainia eta Frantziak kontrolatzen dituzten hezkuntza sistemen funtzioak "nazio, klase eta sexu zapalkuntza" direla.

Horren aurrean, beste proiektu bat proposatzen dute, eta horrek bi helburu ditu: Euskal Herriko hezkuntza sistema propioa lortzea eta sistema hori hezkidetzaillea izatea. Horretarako, proiektuaren diseinua egin behar da eta hori da hurrengo helburua. Diseinu horrek egun emakumezkoen izate soziala, kulturala, zientifikoa eta politikoa isiltzen dituen sistema gainditu egin behar duela argi ondorioztatu zuten topaketetan bildutako emakumeek. Hori dela-eta, curriculumera eraldatu, heziketa proiektuak baliagarri egin eta egungo balioak aldatu behar dira.

## EIEF-FEREko 50 irakasle HUHEZIn izan dira Informazio Teknologiei buruzko informazioa jasotzen

EIEF-FEREko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako 50 irakasle inguru Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak antolatutako jardunaldian izan ziren azaroaren 30ean. Informazio eta Komunikazio Teknologien inguruko jardunaldia izan zen, eta IKTKo masterreko arduradunekin jardun ziren.

Egunean zehar aipatu arduradunek gai horren inguruko informazioa eman zien irakasleei. Horrez gain, eztabaidatu zuten zein diren hezitzaileen egitekoak gaur egungo eskolan. Izan ere, egun ikasleek telebistan edo Interneten ikusten dituztenak egiazkoagoak dirudite irakasleek ikasgelan esandakoak baino. Jakitea ez dago liburuetan eta irakasleengan soilik, eta horrek ikasteko eta irakasteko moduak aldarazi ditu.

## Baztango Herrietako Eskolek Rosa Sensat Fundazioak antolatutako lehiaketako 2. saria jaso dute

Rosa Sensat Fundazioak Pedagogia Sariketan hezkuntzako proiektuak saritzen ditu. Aurten XXI. edizioa egin du eta 2. saria Baztango Herrietako Eskolek jaso dute [www.k@zet.org](http://www.k@zet.org) proiektuagatik. Lehenengo saria Managuako Unibertsitateko Roser Solá errektoreordeak irabazi du. Nikaraguako eskola baten jardueraren inguruko proiektuagatik eman diote saria.

Bigarren saria, [www.k@zet.org](http://www.k@zet.org), Baztango Herrietako Eskolek 2000/01 ikasturtean martxan jarritako proiektua da. Bailerako eskolen artean egiten duten aldizkaria da berau. Amaiur, Oronoz, Almanoz, Ziga, Irurita, Gartzain, Erratzu, Azpikueta, Arizkun eta Arraiozko eskoletan

ekoizten duten hainbat produkzioz osaturik dago: elkarriketak, ipuinak, errezetak, haur jolasak (aho-korapiloak, asmakizunak...), marrazkiak, testuak, eta abar... Baita ikus-entzunezko ekoizpenak ere: soinuak, kantak, bideoak, diapositibak, bideo konfererentziak eta abar. Eskoletan egindako lanak modu elektronikoan bildu eta hedatzen ditu, beraz, [k@zet.org](mailto:k@zet.org) hiru hilean behin.

Esperientzia horrek Teknologia Berriak eta komunikazioa (aho hizkuntza, idatzizko hizkuntza, arte hizkuntza...) uztartzeko aukera eman die eskola horietako irakasleei eta ikasleei. Zeharlerro bezala planteatu dutenez, hainbat gai eta arlo lantzeko paradigma ematen die ikasgai anitzetan: matemati-

ka orduetan, hizkuntza orduetan, artea lantzerakoan, musika lantzerakoan eta abar.


Era berean, eskolen arteko komunikazioa eta harremana estutu egin da, guztiak proiektu berean murgilduta baitabilza.

Hori guztia aurrera aterako irakasleek Teknologia Berrietan trebatu behar izan dute, eta horretarako ahalegin eta esfortzu sakona egin dute. Eskolaz kanpoko orduetaz baliatu dira hainbat lan burutzeko: e-postak bildu eta igortzeko, [k@zet.org](mailto:k@zet.org) sarean sartzeko, lan bilkurak egiteko eta koordinatzeko...

Esfortzu eta lan guztiak merezi zuelakoan zeuden, hau da, [k@zet.org](mailto:k@zet.org)-rekin gusturara. Eta sari honek aurrera jarraitzeko indarra areagotuko die bai irakasleei eta baita ikasleei ere.



Urtean 10 aldizkari eta ale monografikoak




Zatoz jolastera! bideoa




Haur-jolasen abestiak: zinta I eta II CD I eta II

Haur-jolasen ikastaroak



Musika tresnetarako liburuak eta CDa: Txirulaz I eta II, Gitarraz, Eskusoinuz eta Ostadarraren hotsaz; eta Txirulaz CDa



Gazteak eta euskara liburua. 12-18 urte bitartekoentzako programak



Euskararen GIDA



# historiak zertzeladak

## Bilboko Euskal Eskolak (1908-1918)

Gogoratzeko historia pasarte bat



Idoia Fernandez

EHUko Pedagogia Fakultateko Hezkuntzaren  
Teoria eta Historia Saileko irakaslea

Euskal eskolagintzari erreparatuz gero, badaude behin eta berriz aipatzen diren eskola esperientzia batzuk gure historia berreraikitzen eta idazten lagundu behar digutenak. Horietako batekarri nahi nuke lerrootara: Bilboko Euskal Eskolak.

Ezer gutxi dakigu hamarkada luzez iraun zuen eskola esperientzia horren inguruan; batetik, oraindik ez duelako inongo ikertzaileraren arreta bereganatu, eta bestetik, hari buruzko dokumentazioa ez delako ezagutzen. Lerrootan



Bilboko Euskal Eskolako ikasleak Lehen Jaunartze egunean. Euzkadi aldizkaritik hartua, 1918-V-13.

hurbilpen txiki bat egiten saiatu gara, orduko prentsan agertatutakoa iturri gisa erabiliz. Har bitez, beraz, hemen esango ditugunak iturriak ezartzen dizkigun baldintza guztiei erreparaturik.

Euskal eskolagintzarekiko kezka ohiko gaia dugu foruen deseuztapena gertatu zenetik aurrera. Sabino Aranak, Arturo Campionek edota R. M. Azkuek, ospetsuenak aipatzeagatik, makina bat

artikulu eta hitzaldi eman zituzten euskararen galeran maisuak (eskolak) jokatzen zuen paperaz, eta baita euskal eskolak sortzeak zukeen garrantziaz ere. Idaztetik haratago joatea ez zen bide erraza izan. R. M. Azkue da ahalegin horretan agertzen zaigun lehena, hain zuzen ere 1894. urtean Bilbon Euskal Ikastetxea zabaldu zuenean. Bere hitzetan *“todos nuestros esfuerzos en*



*las iglesias, todos nuestros concursos, todas nuestras peroraciones en pro de la lengua serán inútiles si no comenzamos la obra de redención de la escuela y no asentamos en ella el más firme sostén de nuestra obra futura*"<sup>1</sup>. Azkuek bultzatutako eskolak, baina, ez zuen iraupen luzerik izan, zeren 1899. urtean beste erlijioso batzuen eskura utzi behar izan baitzuen eta haien artean ez omen zegoen euskaldunik.

1908koa dugu Plaza Berriko euskal eskolaz aurkitu dugun lehenengo agerpena. JEL aldizkarian agerturiko Bilboko Centro Vascoren deialdi batean euskal haur eskolarako zuzendaria eta laguntzailea kontratatzeke baldintzak eta prozedura azaltzen zaizkigu: *"tiene por objeto enseñar a los niños de ambos sexos a hablar, leer, escribir, contar y rezar en Euzkera y castellano"*. Gainerako ikasgaiak gaztelaniaz burutuko zirela gaineratzen zuen, eta baita geografia, historia eta musikaren irakaskuntzan Euskal Herrikoek lehentasuna izango zutela ere.

Izan ere, euskal eskolak ezartzeko garaian, orduan Bilbo bezalako hiri batean gaztelania zuen garrantzia eta ospe soziala nabarmentzen zaizkigu. Egunkarietan agertutako artikuluetan euskal eskoletara joateak gaztelania ere ikastea zekarrela azpimarratzen zen, eta beste tokietan bezain ondo, gainera. Haien ametsa euskara irakaskuntza bakarra izan zedin bazen ere, euskal eskoletan sartzen den ikasleriaren %95 erdalduna izateak irizpide praktikoetara jotzera bultzatzen omen zuela zioen Euskal Eskoletako Patronatuko batzarkide batek Euzkadin egini-ko elkarriketa batean. Elebitasun planteamentu horien atzean, gurasoek euren seme-alaben heziketa kalitatearen inguruan eduki zitzaizketen zalantza izpiak desagerrarazi nahi izateaz gain, Bigarren Hezkuntzan gaztelaniazko ikaskuntza ondo finkatzeko asmoa ezkutatzen zen, maila horretan segida emateko inongo euskal ikastetxerik ez baitzegoen orduko garaian.

Euskal eskoletan eskolatzea bene-

tan onuragarria zela ziurtatzeko, hainbat bide hartu zituzten ekimen honen bultzatzaileek. Irakasleriari dagokionez, euskaraz jakiteaz gain, haur eskola horietako maestrak kontratatzea deliberatu zuten, eta oinarriko edo goi mailako irakasle titulua eskatu zuten. Horretaz aparte, elizgizon baten *portera erlijioso eta moral oneko* ziurtagiria eratu zuten. Zuzendaria 22-35 urte bitartekoa eta laguntzailea 17-30 urte bitartekoa izatea erabaki zuten. Eta haur eskolarako irakaskuntza, programa eta baliabideen inguruan gaztelaniaz idatziriko memoria eskatzen zituzten. Beraz, kristautasunaren ezaugarriez gain, pedagogia trebakuntzaz ere arduratu zirela ondoriozta dezakegu.

Horrez gain, haurren aurrerapenen erakusketa publikoen aipamenak ere agertzen zaizkigu. Azterketa publiko horiek tradizio luzea dute euskal hezkuntzaren historian. Zeren bai ilustratuek sorturiko Bergarako Erret Mintegian, bai euskal Lore Jokoetan, literatura sariketan horrelakoen berri erraz aurkitzen baita. Bilboko euskal eskoletako haurrek ikaskuntzak erakusteko erabiltzen zituzten euskal abestiak, otoitzak, historia edota matematika ezagupenak ere azaltzen ziren, bertan elkartutako poza eta txaloak bilduz: *"euzkeraz zenbatzia gaitz-gatxa da, baña izanik be eurek ederto egin eben edo-zein gauzeatzaz irakaslarijak itaundu eutsiena be euzkeraz eran-tzuten eben."*<sup>2</sup>

Euskal eskolaren esperientzia hori, esan bezala, 1908an abiatu zen Bilboko Plaza Berriko 4. zenbakian, 33 ikasle zituelarik (haur eskolako mailakoak). Bere sostengu eta jarraipenerako *Euskal Eskoletako Patronatuko Batzarra* osatu zen euskal kulturako eta hezkuntzako pertsonai esanguratsuen laguntzaz. 1913an nesken oinarriko eskola ere zabaldu zen, 1915ean 150 ikasle eta hiru maistra zituelarik.

1915ean, Bilboko zabalgunean da goen Colon de Larreategiko 22. zenbakian horrelako beste euskal eskola bat eratu zen. Plaza Berrikoan andereño

lanetan ibilitako Rosario Arribi joan zitzaien zuzendari. Garai hartan izen berria hartu zuten: Colegio Ntra. Sra. de Iziar y Ntra. Sra. de Arantzazu.

Ez zen erraza eskolok egini-ko bidea. Prentsan antzematen denagatik, alde batetik arazo ekonomikoak zituzten, eta bestetik jendeak, baita jeltzaileek beraiek ere, hizkuntzarekiko zuen atxikimendu eskasa behin eta berriz azaltzen dira artikuluetan, haurrak eskola horietara bidaltzeko deiekin batera. 1917an sumatzen zen ahultzearen aurrean erreakzionatuz, Euzko Gaztediren bultzada jasoko du proiektuak, Batzarrean kide berriak sartuz eta eskola beraren programa eta filosofia birformulatuz. Ez dakigu ahalegin horren emaitza nolakoa izan zen, 1917/1918 ikasturteko zabaltze ekitaldien berri baino ez baitugu aurkitu.

Euskal eskola horiek, baina, isililik desagertu omen ziren Primo de Riveraren diktadurarekin batera. Egoe-rra berri horretan euskal eskolei sostengua ematen zieten Euzko Gaztedi edota Emakume Abertzale Batza bezalako erakundeak legez kanpo gelditu izana, eta beren historian arrastaka zeramaten zama ekonomiko eta diglosikoa aipa ditzakegu desagertu horren arrazoi modura: *"Algunos patriotas comprendieron la importancia y necesidad de esta institución y le prestaron su apoyo. Este no fue, sin embargo, como debiera haber sido. La mayor parte de los vascos, a pesar de decirse patriota, no comprendieron, sin duda, toda la transcendencia de la Escuelas Vascas. Aún no estaban, acaso, suficientemente preparadas las gentes"*.<sup>3</sup>

Horrela zenetz ezin dezakegu esan. Baina, esperientzia isolatu hori, beste batzuekin batera, hamarkada batzuk geroago euskal eskolagintza erdiesteko ereindako hazi izan zela ezin uka dezakegu. Eta hori aintzat hartzea ez datorrigitu txarto, ezta? •

1- AZKUE, R. M. Bilboko Campos Eliseos Antzokian emandako hitzaldia. 1916-V-2.

2- LEIZKAIN. *Euzko-ikastolea*. Bizkaitarra. 1910-XII-31.

3- EUZKADI. *Escuelas vascas*. 1917-IX-11.



# Gazteentzako Entziklopedia Ilustratua



Lurra  
Animaliak  
Munduko historia  
Antzinako herriak  
Zientzia eta Unibertsoa

10 urtetik aurrera

